

**NAFARROAKO GOBERNURAKO  
PROGRAMA-AKORDIOA**

**2015-2019 LEGEALDIA**

## **AURKIBIDEA**

1. Akordioa
2. Zerbitzu publikoak eta herritarren erreskatea
3. Ekonomia, enplegua eta zerga-sistema, industria, merkataritza, turismoa eta lan-harremanak
4. Autogobernua, demokrazia, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea
5. Toki-administrazioa, azpiegiturak, ingurumena, landa-garapena eta lurralde-antolamendua
6. Aniztasuna, elkarbizitza, bakea eta biktimak
7. Funtzio publikoa, justizia eta barne-gaiak
8. Programa-akordioa garatzeko eta haren jarraipena egiteko batzordea

## 1. AKORDIOA

Joan den maiatzaren 24ko hauteskundeen ondoren, aldebiko harremanen lehenengo txandaren ostean, GEROA BAI, EH BILDU, AHAL DUGU eta EZKERRA talde politikoek elkarrizketak hasi zituzten, Nafarroako gobernu berri sendo eta egonkor baten oinarriak finkatzeko.

Lanerako metodo gisa, lehenik, programa-akordio bat onartzeko konpromisoa hartu zuten aipatutako taldeek. Bada, dokumentu honek hezuramitzen du akordio hori. Gaikako sei bloketan banatuta dago dokumentuaren edukia, eta, amaieran, badakar jarraipen-batzordeari buruzko atal bat ere.

Talde bakoitzeko organo eskudunek berretsi eta gero, GEROA BAIk, EH BILDUK, PODEMOS-AHAL DUGUK eta IZQUIERDA-EZKERRAK akordio hori sinatzen dute, eta hura betetzeko erabateko konpromisoa hartzen dute.

Iruñean, 2015eko uztailaren 17an.

Geroa Bai

EH Bildu

Podemos - Ahal Dugu

Izquierda - Ezkerra

## 2. ZERBITZU PUBLIKOAK ETA HERRITARREN ERRESKATEA

### 2.1. GIZARTE-POLITIKAK

Azken urteetan, Nafarroako ongizate-mailak drastikoki atzera egin du: Egun, Nafarroako gizartea pobreagoa da; haren barne-kohesioa, txikiagoa; eta bazterketa-egoeran dagoen biztanleria, handiagoa. Gainera, nafarren bizi-proiektuak askoz ere mugatuago daude.

Egoera gogor horretan, aurreko gobernuek gauza bakarra egin dute: Nafarroako herritarrak are gehiago zigortu; beste esparru batzuetan aplikatu dituzten murrizketa ekonomizistak aplikatu dituzte gizarte-politiken esparruan ere.

Gizarte-prestazioen zenbatekoa murriztu dute: mendekotasun- eta desgaitasun-egoeran dauden pertsonentzako prestazioak horren adierazgarri garbia dira. Era berean, onuradunen kopurua murriztu dute; oinarrizko errentaren orde z gizarteratze-errenta ezarri izana da horren adierazlerik argiena, gizarteratze-errenta askoz ere murriztaileagoa baita oinarrizko errenta baino eta kanpoan utzi baititu oinarrizko beharrei ere (adibidez, elikadura- eta etxebizitza-beharrei) erantzuteko baliabiderik ez duen pertsona eta familia anitz. Azkenik, gizarteratze-eta laneratze-prozesuetan funtsezkoak eta nabarmenki eraginkorrak diren baliabideak murriztu dituzte; adibidez, gizarte-enplegu babestua.

Kudeaketa negargarria izan da, plangintzarik gabea eta helburu bakarrekoa: ustez, kostuak jaistea; ildo horretan, arreta bermatzen duten zerbitzuen aldean, laguntza ekonomikoei eman diete lehentasuna. Kudeaketak askoz ere gehiago begiratu dio negozio pribatuari onura publiko eta sozialari baino: horren adierazgarri, ez dute adierazi batere interesik toki-entitateen mendeko zerbitzuen inguruan (funtsean, oinarrizko gizarte-zerbitzuek ematen duten lehen mailako arreta-zerbitzuen inguruan), eta, areago, legez zegokien finantzaketa ukatu diete batzuetan.

Egoera horri guztiari buelta ematea da gobernu berriaren proposamena:

- Ekitatea, elkartasuna eta justizia birbanatzailea izanen dira sistemaren oinarrian jarriko ditugun printzipioak.
- Gure ustez, gizarte-politikak ez dira zerbitzu eta prestazioak bakarrik: **konpromiso** bat ere badira, gobernuak hartzen dituen neurri guztiak lotzen dituenak.
- Honako hauek dira gure apustuak:
  - Herritarrei kendutako arreta-maila berreskuratzea, ez diogulako uko egiten Nafarroan ongizate-estatua konkistatzeari.
  - Gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa finkatzea eta, pixkana-pixkana, bermatutako prestazioak areagotzea.

- Pertsona guztiek baldintza beretan izatea gizarte-prestazioetarako eskubideak, haien ezaugarriak (jatorria, generoa, etnia, adina, ideologia, hizkuntza, egoera administratiboa...) direnak direla ere, eta hartzaileen artean egoerarik ahulenean daudenei ematea lehentasuna.
- Ekitatea ziurtatzea, pertsona guztiek erabili ahal izan ditzaten eskubideak.

## AKORDIOAK

---

### Orokorrak

1. Gizarte-ongizatearen behatoki bat sortzea, gaiari buruz ditugun informazioa eta datuak biltzeko eta gizarte-politiken plangintza eta diseinua bideratzeko azterketa eta analisiak biltzeko eta proposatzeko.

Gizartearen egoeraren behatoki publiko bat sortzea da asmoa, gizartea aldarazten duten arrazoi eta faktoreen ikerketa bideratzeko eta eskaera eta beharrak aztertzeko eta, horrela, pobrezia, bazterketari, mendekotasunari eta gizartearen beharrei buruz gehiago jakiteko eta benetan garatzen laguntzen duten politikek bereziki (osasun-, hezkuntza- eta enplegu-politikek, aberastasunaren birbanaketak eta diru-sarreraren bermeak) adierazleetan duten eraginaren arabera ebaluatu ahal izateko ekintza politikoa.

Gizarte-bazterketaren kontrako aurreko planaren filosofiari (parte-hartzeari) heltzea eta Behatokiaren barruan lantalde bat sortzea proposatuko dugu, gizarte-ikerketaren eta gizartegintzaren esparruko eragileek osatua (Berdintasun eta Gizarteratze Gaiei buruzko Ikerketaren Katedra, Nafarroako Pobreziaren kontrako Sarea, administrazio publikoa, hirugarren sektorea...).

2. Zerbitzu publikoak babestea eta sustatzea:

- Egun dauden zerbitzuak eraginkortasunez kudeatzea eta haien kalitatea bermatzea.
- Administrazioa ematen ari den zerbitzuak ez pribatizatzea; bereziki, beren funtzioen artean beharrak eta egoera zailak ebaluatzea dutenak.
- Behar adina zerbitzu berri sor daitezen bultzatzea eta, ahal bada, pribatizatutakoak kudeaketa publikoaren esku uztea berriro ere. Alde horretatik, pribatizatutako zerbitzu guztiak aztertuko ditugu, eta plangintza bat prestatuko dugu, zerbitzuak pixkanaka kudeaketa publikoaren esku uzteko berriro ere.

3. Ituntze-sistema berrantolatzea:

- Pribatizatutako zerbitzu guztiak xeheki aztertzea; bereziki, egoitza guztiak.

- Ikuskatze-lana areagotzea eta zerbitzu bakoitzean kontrol ekonomikoa eta langileria-politiken eta kalitate teknikoaren kontrola sendotzea.
  - Merkataritza-enpresen aldean lehentasuna irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenak, ekonomia sozialaren alorreko enpresek eta abarrek izateko beharrezko mekanismoak antolatzea.
4. PFEZagatik biltzen denaren % 0,7ri buruzko legea hertsiki betetzea.
  5. Kontratu publikoei buruzko Foru Legeko 9. artikulua betetzea, kontratu publikoen % 6 gutxienez entitate sozialentzat erreserbatzeari dagokionez.
  6. Entitate sozialen finantzaketa egonkorraren alde egitea; ahal dela, hitzarmenen bidez edo, bestela, hainbat urtetarako deialdien bidez.
  7. Diru-laguntzak emateko deialdien irizpideak bateratzea.
  8. Konpromiso sozialaren zigilua deuseztatzea.
  9. Koordainketa arautzea eta mugatzea (gizarte-bazterketaren esparrukoak alde batera utzita, egoitza-prestazioetarako bakarrik ezartzea) eta bi marra iraganezin jartzea:
    - Inor ez geratzea zerbitzurik gabe dirurik ez izateagatik.
    - Inork ez jasotzea zerbitzu gehiago diru edo ondare gehiago izateagatik.
    - Koordainketari buruzko araudia progresiboa izatea.
  10. Diagnostikoa egin eta gizarte-zerbitzuen plan estrategiko berri bat prestatzea, laguntza emateko lehentasunak finkatzeko eta zerbitzu eta prestazioen banaketa orekatzeko neurriak hartzeko, nafar guztiek baldintza beretan erabili ahal izan ditzaten, non bizi diren ere.
  11. Gizarte-arloko plan, programa eta prestazio guztien esparruan genero-gaiak kontuan hartzea; funtsean, horiek guztiek emakumeen bizitzan dituzten ondorioak aztertzea, diskriminazio negatiboa ez areagotzeko, ezta emakumeak zaintzaile behartu bihurtzea ere.
  12. Herritarrek eta, bereziki, erabiltzaileek gizarte-zerbitzuetan parte hartzeko bideak antolatzea.
  13. Egokia bada aurrekoen aplikazioaren emaitzen arabera, Gizarte-zerbitzuei buruzko Foru Legea aldatzea.

## **Lehen mailako arreta**

1. Gizarte-zerbitzuetako lehen mailako arreta sustatzea, programa guztiak oinarrizko eremu guztietan ezartzea eta Gizarte-zerbitzuei buruzko Legearen bidez toki-entitateek finantzaketa nahikoa izan dezaten ziurtatzea, haiek baitira titularrak. Alde horretatik, lege hori luzaroan aldatzen ez bada, oinarrizko gizarte-zerbitzuen finantzaketa arautzen duen foru-dekretua aldatuko da, epe laburrean.
2. Oinarrizko gizarte-zerbitzuei gizartean esku hartzeko beharrezko langile eta baliabideak esleitzea eta jardunbide asistentzialista hutsa gainditzea.
3. Oinarrizko gizarte-zerbitzu guztietan arreta komunitarioa bermatzea eta herritarrek auzolanean, elkarteetan eta boluntarioritza-lanean parte har dezaten bultzatzea, elkarbizitza-arazoei aurrea hartzeko, kulturartekotasuna eta gizarteratzea sustatzeko eta, azken batean, auzoko kohesio soziala handitzeko.
4. Gizarte-zerbitzuetako zentro guztiak bi urtean ezartzea. Alde horretatik, zentro bat izanen da Iruñean, eta beste bat Iruñerrian.

### **Gizarteratzea**

1. Sektore arteko gizarteratze-plan bat prestatzea, pobrezia- eta bazterketa-egoera guztiei aurre egiteko: bai arrisku-egoerei, bai oso pobrezia- eta bazterketa-egoera larriei. Alde horretatik, oso egoera larriei emanen zaie lehentasuna, bazterketa-egoera larrian daudenak alde batera utzi gabe.
2. Pertsona guztiei gutxieneko diru-sarrerak bermatzea, oinarrizko errenta bat ezarrita legealdiko lehenengo sei hilabeteetan:
  - Unibertsala izanen da; pertsona guztiek kobratu ahal izanen dute, haien legezko egoera edo egoera juridikoa dena delakoa ere.
  - Nafarroan urtebete bizitzen daramatenek kobratu ahal izanen dute.
  - Lanbide arteko urteko gutxieneko soldataren arabekoak izanen dira zenbatekoak.
  - Ezin izanen da bahitu.
  - Mugagabea izanen da; onuradunak behar-egoeran segitzen badu, berritu egin ahal izanen du.
  - Familia-unitateko kideen kopuruaren arabera kalkulatu dira zenbatekoak, eta eskaera berritzen denean ez dira murriztuko.
  - Laneratze-akordio bat sinatzeko eskakizun orokorra desagertuko da.
  - Prestazioaren titularrak eta lan egiteko adina duten gainerako onuradunek lanerako prest eta lan bila egon beharko dute, salbu eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen ustez ez badaude lan-merkatuan sartzeko edo lanpostu babestu bat izateko moduan.
  - Onuradunek lanen bat egitea bultzatzeko, soldataren zati bat ez da hartuko kontuan diru-sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko -zehazteko dago zer zati-, beste soldata-errenta batzuekin desorekarik ez izateko.

- Ibilbide bati jarraituz, gizarteratze-prozesuan laguntza izateko eskubidea izanen dute onuradunek, beren baliabide, gaitasun eta ahalmenak mobilizatu ahal izan ditzaten eta inguruko baliabideak erabil ditzaten.
  - Dagokionean eztabaidatuko da errenta kobratzeko gutxieneko adina 18 urtekoa izanen den edo, salbuespenak salbuespen, 25 urtekoa izanen den.
  - Egungo gizarteratze-errentaren zigor-araubidea aztertuko da.
3. Laneratze-esparruak areagotzea; eta laneratze-zentroak, zentro bereziak eta gizarteratze- eta laneratze-zentroak sustatzea eta horrelako gehiago sortzea; ahal dela, administrazio publikoek.
  4. Gizarteratze- eta laneratze-zentroi laguntzak ematea berriro.
  5. Bazterketa-egoeran dauden pertsonak kontratatzen dituzten enpresei laguntzak emateko neurriak hartzea. Alde horretatik, laguntzen zenbatekoa kontratazioaren kostuaren % 100etik beherakoa izanen da.
  6. Kontratazio publikoaren esparruan klausula sozialak bete daitezzen behartzea eta kontratazio pribatuaren esparruan klausula sozialak ezartzeko pizgarriak ematea.
  7. Lantegi-eskolak sustatzea eta sendotzea.
  8. Enplegu-lantegiak sustatzea eta sendotzea.
  9. Gizarte-enplegu babestua sustatzea eta sendotzea eta egun Zuzeneko Enplegu Aktiboa programarako jartzen den zenbatekoa programa horretarako erabiltzea, osorik. Salbuespen gisa, ekitaldi honetan, Zuzeneko Enplegu Aktiboa programarako kontu-saila handituko da; betiere, erantzuteko dauden eskaerei erantzuterik badago oraindik.
  10. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak langabeak kontratatzeko ematen dituen laguntzen deialdiak aztertzea, Gizarte Ongizateko Departamentuarekin bateratzeko.

## **Etxebizitza**

1. Etxebizitza-plan estrategiko bat prestatzea, honako hau duena printzipio orokortzat: etxebizitza erostearen aldean, etxebizitza alokatzeak izatea lehentasuna.
2. Hipotekak Kaltetutakoen Nafarroako Plataformaren proposamenekin konprometitzea, I. eranskinak dioenarekin bat.
3. Eraikuntza berriak egitearen aldean, egungo etxebizitzak zaharberritzeari ematea lehentasuna. Alde horretatik, eraginkortasun energetikoa lortzeko irizpideei jarraituko diete etxebizitzak zaharberritzeko lanek, eta bizitzeko



baldintzak hobetuko dituzte. Gainera, familien errenta haztatuaren arabera diruz laguntzen diren ehunekoak hobetuko dira.

4. Etxebizitza-kooperatibak sustatzea.
5. Alokatzeko etxebizitzaren poltsa handitzeko neurriak hartzea.
6. Toki-entitateekiko hitzarmenak sustatzea, etxebizitza publikoak eraikitzeko orube publikoak izateko.
7. Aztertzea zer erakunde den egokiena etxebizitza publikoak kudeatzeko – Nasuvinsa arduratzen da egun-, zer-nolako egitura eta eskumenak izanen dituen eta zer-nolako harremanak izanen dituen etxebizitzaren inguruko gizartegaietan esku hartzen duten entitateekin; bereziki, oinarrizko gizarte-zerbitzuekin.
8. Maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea –duela gutxi eguneratu zen, 27/2014 Foru Legearen bidez–, alokatutako etxebizitza duin bat izateko eskubidea bermatzeko.  
Alokairu soziala arautzea, etxebizitza babestuak alokatzeko kalkulua egiteko erabiltzen den moduluaren balioa jaisteko, egungo prezioak merkatukoak baino altuagoak baitira anitzetan: azken zazpi urteetan, etxebizitzaren prezioak nabarmen jaitsi dira Nafarroan (etxebizitza librearenak, % 43), baina moduluaren balioa % 14,7 igo da.  
  
Betiere, etxebizitza babestuak eta haien eranskinak alokatzeko gehieneko prezioa bera izanen da, etxebizitzaren titularra entitate publiko bat den edo entitate edo pertsona pribatu bat den gorabehera.
9. Etxebizitza babestuak alokatzeko baremoa aldatzea eta erroldatuta emandako urteak ez saritzea (erroldatuta dauden guztiak berdintzat hartzea, Nafarroan zenbat denbora daramaten gorabehera). Era berean, etxetik kaleratutako familiei ematen zaien puntu kopurua handituko da, eta puntuak emanen dira etxebizitzak baldintza eskasetan badaude, baita oztopo fisikoak badituzte (adibidez, ez badute igogailurik) eta adineko pertsonak edo mugitzeko zailtasunak dituztenak bizi badira haietan.
10. Diru-laguntza espezifikoak ematea alokairua ordaintzeko, familiek beharra duten artean, etxebizitza ordaintzeko haien gaitasuna doitzeko.
11. Etxebizitza ordaintzeko laguntza osagarri bat sortzea, prestazio bermatu bat, oinarrizko errenta kobratzen duten guztientzat.
12. Egoera ekonomiko eskasean daudenek hornigaiak ordaintzeko murrizketak ezartzea eta, areago, zergak ordaintzetik salbuestea (kontribuzioa).
13. Bankuen eta etxea bahitu dieten familien artean bitartekari eta negoziatzaile aritzea eta bitartekaritza eta negoziazioa sustatzea etxea bahitu dieten familien

egoerari aurre egiteko.

14. Prebentziozko laguntza ematea etxebizitza galtzen duten pertsoneri, ez daitezen gelditi kalean: aldi baterako etxebizitzak eta etxebizitza finkoagoak.
15. Bazterketa-egoeran daudenentzako etxebizitzak zaharberritzeko lanak areagotzea.
16. Gizarteratzeko Etxebizitzen Programari eustea eta hura sustatzea –funtsean, alokatzeko etxebizitzei dagokienez– eta behar berrietara egokitzea.
17. Egoera sozial zailean dauden emakumeentzako, iragaitzazko bidarientzako, etxerik gabeko pertsonentzako... ostatuak mantentzea eta haien kopurua handitzea.
18. Askotariko egoerei aurre egiteko etxeak izatea; zehazki, tutorepeko etxebizitza-sare bat sortzea bazterketa-egoeran daudenentzat: desintoxikatzen ari direnentzat, komunitate terapeutikoetatik irteten direnentzat, gizarte-larrialdi batean daudenentzat, programa berezietan parte hartzen ari diren zigortuentzat, preso ohientzat...
19. Kohesio soziala hobetzeko neurri integralak hartzea defizit handiak dituzten auzoetan (egoera txarrean dauden etxebizitzak, zerbitzurik eza, etab.).

## **Mendekotasuna**

1. Mendekotasunari buruzko foru-lege bat egitea.
2. Mendekotasun-egoeran daudenei laguntza emateko plan bat prestatzea eta, haren barruan, arreta soziosanitarioari eman beharreko trataera ezartzea.
3. Autonomia sustatzea eta mendekotasunaren prebentzioa azpimarratzea. Horretarako, programak ezarriko dira mendekotasunaren esparruan lan egiten duten zerbitzu guztietan.
4. Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran daudenei Laguntza Emateko Programaren barruko etxeko arreta-zerbitzuak sustatzea –oinarrizko gizarte-zerbitzuak arduratzen dira etxeko arretaz–, mendekotasun-egoeran ez daudenentzako arreta sustatzea, zerbitzuen prestazioak areagotzea eta arretaren intentsitatea eta estaldura hobetzea. Azken parametroari dagokionez, Estatuko batez bestekora hurbiltzea izanen da helburua.
5. Mendekotasun-egoerak ebaluatzeko beharrezko denbora hiru hilabetera laburtzea eta ebaluazioa egiteko eta dagozkion baliabideak erabiltzeko itzarote-zerrendak deuseztatzea.
6. Prestazioen norabidea aldatzea eta zerbitzu gehiago ematea zuzenean, laguntza ekonomikoen kaltetan.

7. Laguntza ekonomikoen zenbateko eta ezaugarriak lehengoratzeko eta murrizketen aurreko egoerara ekartzea (zaintzaileak Gizarte Segurantzara hitzarmen bidez afiliatzeko diru-laguntzak ematea). Laguntzek finalistak izaten jarraituko dute, eta Arreta Programa Indibidualarekin eta erreferentziako oinarriko gizarte-zerbitzuak kasuan-kasuan egiten duen jarraipenarekin lotuta egonen dira.
8. Behar adina egoitza-baliabide sortzea, zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoa salbuespenezko laguntza bat izan dadin egiaz.
9. Etxe berean bizi diren pertsonentzako prestazioak bateragarriak izatea eta egun indarrean dagoen araudia indargabetzea.
10. Eguneko zentro publikoetako tokien kopurua handitzea.

### **Arreta sektoriala**

1. Haurrentzako plan berri bat prestatzea eta, haren barruan, ikuspegi metodologiko berri bat ezartzea haurrak babesteko sistemen eta haurrentzako zerbitzuen kudeaketaren gainean, zerbitzuen merkantilizazioa eta pribatizazioa amaitzeko.
2. Egoera sozial zailean dauden adingabeen harrera profesionala sustatzea.
3. Hurrekin eta nerabeekin zuzenean lan egiten duten entitate soziokomunitarioek (auzo eta herrietako gazte-elkarteek, familia-elkarteek eta guraso-elkarteek) Nafarroako haur- eta gazte-elkarteen sare bat osa dezaten bultzatzea.
4. Auzo eta herrietan gazteentzako programak antolatzeko dauden lokalek eta Nafarroa osoan hurrek eta nerabeek oporrak eta asteburuak emateko dauden aterpe eta etxeek gazteentzako Nafarroako gune publikoen sare bat osa dezaten bultzatzea.
5. Indarkeriari aurrea hartzeko programak ezartzea, sexismoa eta eskolako jazarpena arbuizatzeko irakastea eta tratu onak eta kooperazio-harremanak sustatzea.
6. Gazteak hezkuntza-sisteman eta lan-merkatuan sartzeko eta gizarteratzeko plan integral bat prestatzea eta, haren barruan, prestakuntza-neurriak hartzea, kontrataziorako pizgarriak ematea eta lan-merkatuan sartzeko programak ezartzea.
7. Organo berri bat sortzea (edo lehendik daudenak edukiz janztea), migrazio-politiken eta aniztasunaren kudeaketaren gaineko politika publikoak koordinatzeko eta haiek, zeharka, gizartean eragina duten alor guztietan aplikatzeko (etxebizitza-arloan, enplegu-arloan, osasun-arloan, hezkuntza-arloan...).

8. Arrazoi ekonomikoak direla-eta migratzen duten etorkinei harrera egiteko programak prestatzea eta kulturartekotasuna eta ezberdinen elkarbizitza sustatzea.
9. Desgaitasuna duten pertsonei arreta emateko plan integral berri bat prestatzea eta gauzatzea, printzipio hauetan oinarrituz: aukeratzeko askatasuna, autonomia pertsonala eta bizimodu independentea.
10. Egun desgaitasunen bat duten pertsonei laguntza emateko zentroak kudeatzen dituzten enpresek kontratua betetzen duten aztertzea, deuseztatzea balegokio ere.
11. Desgaitasunaren sektorean lan-hitzarmena berrezar dadin bultzatzea.
12. Irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko Foru Legea betetzea eta garatzea. Alde horretatik, Nafarroako Gobernuaren plangintza- eta betearazpen-jarduketa guztiek (barnekoek zein kanpokoek) kontuan hartuko dute, hasieratik, ororentzako diseinuaren printzipioa, eta ibilerraztasuna unibertsala izateko eskakizunak beteko dituzte.
13. Zahartze aktiboa sustatzeko programa bat prestatzea eta abiaraztea.
14. Alarguntasun-pentsioak kobratzen dituztenentzako osagarria gainerako pentsiodunei ordaintzea.
15. Presoen eta preso ohien bizi-baldintzak hobetzeko neurriak hartzea, haien eskubideak bermatzea eta gizarteratu daitezen bultzatzea.
16. Espetxe Idazkaritza Nagusiarekin Iruñeko espetxea kudeatzeko sinatutako akordioa aztertzea eta espetxearen antolamenduan eta funtzionamendu modularrean parte hartzea, presoen bizi-baldintzak babesteko; bereziki, espetxean bertan seme-alabak dituztenenak.
17. Nafarroan sustraituta dauden presoak gizarteratzeko estrategia bat prestatzea, haien familiartea eta ingurune soziala kontuan izanik.
18. Egungo programa eta baliabideak beharretara egokitzea, finantzaketa egokia izateko, eta presoekin eta preso ohiekin lan egiten duten elkarteekin elkarlanean aritzea.

### **Garapenerako lankidetzak**

1. Berehala, legealdia amaitu baino lehen aurrekontuaren % 0,5 garapenerako laguntza ofizialerako erabiltzeko pauso eraginkorrak ematea eta Zero Pobrezia

plataformak pobreziaren aurka prestatutako Nafarroako itun-proposamenaren irizpideei jarraitzea alor honetan.

## 2. Sahararekiko elkartasunezko lotura sendotzea.

### **ERANSKINA: Hipotekak Kaltetutako Nafarroako Plataformaren proposamenekiko konpromisoa**

#### 1. Etxebizitza-politika

- Nafarroako Gobernuak etxebizitza bat erosteko ematen dituen diru-laguntzak alokairua sustatzeko erabiltzea.
- Etxebizitza babestu bat alokatzeko prezioa diru-sarreraren, familia motaren eta abarren arabera izatea.
- Berehala, etxebizitza hutsen errolda prestatzea eta argitaratzea; gehienez, 2016ko ekainerako.
- Espainiako Gobernuari Konstituzio Auzitegian 24/2013 Foru Legearen kontra jarritako errekurtsioa kentzeko eskatzea eta errekurtsioak aipatzen ez dituen artikulua betearaztea.

#### 2. Etxebizitza soziala

- Etxebizitza publiko hutsak Etxebizitza Sozialerako Nafarroako Funtzaren barruan sartzeko, gizarte-larrialdietan erabiltzekoak badira izan ezik, eta Nasuvinsak dituen etxebizitzak Funtzaren barruan sartzeko egokitzea.
- Legealdi osoan, 400 etxebizitza gehitzea Etxebizitza Sozialerako Nafarroako Foruaren barruko etxebizitzetara: 150 lehenengo urtean, 100 bigarrenean, eta 75na hirugarren eta laugarren urteetan.
- Hutsik dauden etxebizitza publikoak gizarte-gaietarako birgaitzeko plan bat prestatzea eta, haren barruan, legealdi honetan horrelako etxebizitzaren % 30 birgaitzea gutxienez.
- Nafarroako Gobernuak hainbat sustatzailerik (Adaniari, Cogremasari eta abarri) alokatzeko esleitutako etxebizitza publikoak zaintzea, gehiegikeriak eta lege-urratzeak amaiarazteko, behin eta berriro salatu izan baitira.

#### 3. Pobrezia energetikoa

2015eko urria baino lehen etxebizitza batek funtzionatzeko oinarrizko hornigaiak bermatzea gizartetik baztertuta gelditzeko arriskuan dauden familiei. Horretarako, "tarifa sozialak" kobratzeko hitzarmenak eginen dira ura, elektrizitatea, gasa... hornitzen duten enprekin eta zerbitzu-mankomunitateekin, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak baldintza egokietan bizi ahal izan daitezen. Gainera, inola ere ez da etenen hornikuntza, eta egoera erregularizatzeaz arduratuko da administrazio publikoa.

#### 4. Etxebizitza-gaien behatoki bat sortzea

Erakundeetako eta gizarte zibileko ordezkariak behatoki bat osatzea, besteak beste, etxebizitza-politika publikoen jarraipena egiteko eta txostenak egiteko. Aholkularitza-organo bat ez ezik, kontrol-, jarraipen- eta salaketa-organo bat ere izanen da behatokia, baita legeak proposatzeko organo bat ere, eta funtzio horiek guztiak betetzeko beharrezko bitartekoak izanen ditu.

## 2.2. HEZKUNTZA

Hezkuntza ez da gastu bat, inbertsio bat baizik. Gizartearen funtsezko oinarri bat da, eta, horrenbestez, baita gizartearen eraldaketarena ere. Gure egoerara eta gure beharretara egokitutako hezkuntza-sistema baten alde gaude. Hezkuntza-sistema publiko baten alde gaude, titulartasun eta kudeaketa publikoko hezkuntza-sistema baten alde, funtsezko ardatz bat baita hori Nafarroako hezkuntza-sistemaren barnean, herritar guztiak berdintasun- eta demokrazia-baldintzetan doako eta kalitateko hezkuntzarako eskubidea erabili ahal izatea ziurtatzeko.

Printzipio hauek gobernatuko dute hezkuntza-politika:

- **Ekitateak** eta **inklusioak**, ikasleen **garapen integrala** eta **kohesio soziala** helburu.
- Hezkuntza-sistema **laiko** baten aldeko apustuak.
- Herritarrei gaitasun sozial eta emozionalak emateak eta herritar **arduratsu, libre eta kritikoak** prestatzeko.
- **Eleaniztasunaren sustapenak**. Alde horretatik, Nafarroako berezko bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) jakitea izanen da oinarria.
- Euskararen murgiltzeko eta euskarazko irakaskuntza hedatzeko apustuak.
- **Baterako hezkuntzak** eta **diskriminaziorik ezak**.
- Hezkuntza-komunitateko kideek erabakietan **parte hartzeko** apustuak.
- **Hezkuntza-komunitateak** heziketa- eta curriculum-proiektuak prestatzeko **autonomiak**.
- **Landa-inguruneko eskolen** aldeko apustuak eta haien babesak, kalitatea, hurbiltasuna, lurraldeen arteko oreka eta tokiko garapena bermatzeko.

Hezkuntza publikoarekiko, irakasleekiko, familiekiko eta hezkuntza-komunitate osoarekiko gure konpromisoa berresten dugu. Irakaskuntza publikoa lantzea lehentasun politiko bat da, eta aurrekontuek ere izan behar dute lehentasun zat: finantzaketa nahikoa; ikastetxe publikoen sare bat; irakasle, baliabide eta azpiegitura nahikoak; eta murrizketa-politikak atzera botatzeko apustua.

## AKORDIOAK

---

1. Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko Lege Organikoari uko egitea, hura indargabetzearen alde egitea eta haren garapena geldiarazteko jarrera irmoa hartzea; betiere, segurtasun juridikoa bermatuta.

2. Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sistemak egiturazko autonomia eta bere burua antolatzeke autonomia izatearen aldeko jarrera irmoa hartzea, hezkuntza-araudia Nafarroako gizartearen ezaugarri, interes eta behar espezifikotara egokitzeko. Horretarako, eztabaida politiko eta sozial bat pitzaraziko da.
3. Hezkuntza-sistema publikoa sendotzea, ahalmen nahikoa izan dezan eta auzo, eremu eta eskualde bakoitzeko oinarritzko hezkuntza-beharrei erantzun diezaien.
4. Itunak egiteko baldintzak aztertzea eta itunpeko sare pribatuak itunek ezartzen dituzten eginbehar guztiak betetzen dituela ziurtatzea, funts publikoak erabiliz finantzaturako zerbitzu publiko bat ematen duen bitartekari eta ordezkari bat baita.
5. Eremu ez-euskalduneko ikastoletarako prozedura berezi bat diseinatzea, otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legea betetzeko, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duena.
6. 17/2012 Foru Legea aplikatzearen aldeko jarrera politiko irmoa hartzea – ikasleak sexuaren arabera banantzen dituzten ikastetxeekin itunak egitea debekatzen du lege horrek–; betiere, segurtasun juridikoa bermatuta.
7. Otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legea garatzea eta aplikatzea, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duena, eskatzen duten ikasle guztiek D ereduan eskolatzeko eskubidea dutela ziurtatzeko.
8. Eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean D ereduan matrikulatzen diren ikasleei garraioa eta jantokia ordaintzeko laguntzak ematea, beren udalerrian eskaintzarik ez badute, eta beren eremuan eskaintza publikorik ez dagoelako nahitaez bidaiatu behar duten ikasleei garraioa eta jantokia ordaintzeko laguntzak ematea, 2015-2015 ikasturtetik aurrera.
9. Ingelesa Ikasteko Programaren hedapena urtebetez atzeratzea gutxienez, egungo programa ebaluatzeko eta hizkuntzen trataera bateraturako plan berri bat diseinatzeko eta curriculumean sartzeko.
10. Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premia neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretua onartzeagatik Nafarroako Foru Erkidegoan aplikatu diren behin-behineko neurriak atzera botatzea: ratioak txikitzea, baja edo baimen bat hartzen duten irakasleak ordezkatzeko eta irakasleen eskola-orduen kopurua txikitzea.
11. Enplegu-eskaintza publiko bat sustatzea, unibertsitatetik kanpoko ikastetxe publikoetan erretiroa hartzen dutenek eta lekualdatze-lehiaketetan parte hartzen duten guztiek uzten dituzten lanpostu hutsak betetzeko, eta, ildo horretan, 2016ko ekainerako lan-eskaintza publiko batera deitzeko konpromisoa hartzea.

12. Hezkuntzako Mahai Sektorialean negoziazio kolektiboari heltzea berriro, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko eta babesteko; bereziki, bitarteko irakasleenak.
13. Ikastetxeetan heziketa-zerbitzuak ematen dituzten baina irakasle ez diren langileen egoera aztertzea, haien lan-baldintzak argitzeko eta hobetzeko.
14. Ekitate-printzipioetan oinarrituz, ikasliburuak doakoak izateko legearen garapena aztertzea eta hobetzea, eskola guztiek curriculumak lantzeko kalitateko materialak izan ditzaten eskura, eta eskolarako beste material batzuk eskuratzeko bekak emateko sistema bat ezartzea.
15. 1979an Vatikanoarekin sinatutako akordioak denuntziatzeko eskatzea Estatuko Gobernuari eta eskolako curriculumaren barruan erlijio konfesionala ez emateko legezko bideak aztertzea –horrek ez du esan nahi curriculumaren barruan erlijioaren gertakaria eta erlijioak ikasiko ez direnik–.
16. Hezkuntza-azpiegitura publikoen diagnostikoa egitea eta ikastetxeak berehala eraikitzeko eta/edo hobetzeko behar eta lehentasunen plan estrategiko bat prestatzea. Gutxienez, honako hauek izanen dute lehentasuna: Biurdana, Castejón, Erronkari, Sarriguren, Buztintxuri, Elizondo LH.
17. Hezkuntza-eskaintzaren antolamendua aldatzea eta ikasleen onarpena eta ikastetxe bakoitzaren eragin-eremua arautzen dituen eskolatzeara aldatzea, ikasleak inguru hurbilean eskolatzeari emateko lehentasuna eta inolako diskriminaziorik ez izateko jatorriarengatik, erlijioarengatik, gaitasunarengatik edo ikaslearen edo haren familiaren beste edozein zirkunstantzia indibidualengatik.
18. Hezkuntza-sistemaren barruan konpentsazio-neurriak hartzea landa-ingurunean eta eskola anitz pilatzen den lekuetan.
19. Landa-inguruneako eskolak mantentzearen eta sustatzearen alde egitea, irmoki egin ere, eta Parlamentuko gehiengoak aurreko legealdian onartutako dekalogo babestea eta gauzatzea.
20. Bekak emateko sistema ikuspegi sozialago batetik aldatzea, ikasle guztiek erabili ahal izan ditzaten hezkuntza-administrazioek sustatzen dituzten eskola-jarduerak eta zerbitzu osagarriak.
21. Ezin ukatuzkoa denez gero Haur Hezkuntza hezigarria dela, Hezkuntza Departamentuak kudea dezan babestea; helburutzat doakotasuna eta sare bakarra izanik, hezkuntza-arloko eragileekin batera plangintza bat diseinatzea, fasez fase gauza daitekeena; kalitate- eta ekitate-baldintzetan, herritar guztiak Haur Hezkuntzan sartu ahal izan daitezen ziurtatzea, segitu egin dezaketela ziurtatuta eta eskatzen duten hizkuntza errespetatuta; eta ikasleak onartzeko irizpideak aldatzea, kuotak aztertzea eta, eskumena Hezkuntza Departamentuak hartzen ez duen bitartean, udalek finantzaketa nahikoa dutela ziurtatzea.



22. LHko hezkuntza-eskaintza aztertzea eta aldatzea eta euskarazko hezkuntza-eskaintza handitzea, lurralde-egituraketa kontuan izanik; LH publikoa sustatzea, gizartearen beharrei erantzuteko, tokiko garapen-agentziekin, inguruko enpresekin, unibertsitatearekin eta hezkuntza-komunitatearekin elkarlanean; pixkanaka, inbertsioak egitea, instalazio eta makina egokiak eskuratzeko; eta egungo sistema (LH duala) sakonki aztertzearen alde egitea, prestakuntza eta laneratzea duinak izatearen ikuspegitik.
23. Hainbat urtetarako finantzaketa nahikoa hitzartzea Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin; prestakuntza-eskaintza eta ikasleek goi-mailako ikasketak egiteko zailtasunak aztertzea eta unibertsitateko tasak jaitea; eta hizkuntza-normalizaziorako plan estrategiko bat egitea Nafarroako Unibertsitate Publikorako.
24. Unibertsitateko graduak erreformatzeko eta 3+2 sistema ezartzeko proposamenari uko egitea.
25. Nafarroako Unibertsitatearentzako ekarpenak aztertzea eta, administrazioak finantzaketa publikoa ematen dionean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko proiektuak ikuspegi zientifikotik eta finantzariotik kontrolatzeko mekanismo berak dituzten proiektuetarako erabiltzen dela egiaztatzea.
26. Helduen Hezkuntzaren Liburu Zuria prestatzea, helduaroko berezitasunak kontuan izanik, eta, haren barruan, baliabide eta behar guztiak hartzea kontuan; eta 19/2002 Legea garatzea eta egokitzea, helduen hezkuntza arautzen duena, Nafarroa osora hedatzeko eskaintza.
27. Etengabeko prestakuntza sustatzea, irakasleei laguntzeko zentroyen bidez, eta, horretarako, zentroyen egitura sendotzea eta zentroak giza baliabide eta baliabide material egokiz hornitzea.
28. Prestakuntza- eta lan-egitasmo bat sortzea, baliabide materialak optimizatzeko, irakasleak prestatzeko eta ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuan informazio- eta komunikazio-teknologieryn erabilera antolatzeke.
29. Araubide bereziko irakaskuntzen eskaintza publikoa bermatzea, musika- eta arte-irakaskuntzei egonkortasuna eta jarraitutasuna ematea eta haiek garatzea.
30. Hezkuntza Sistemaren Kalitate eta Ebaluaziorako Nafarroako Institutua sortzea, irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntza dinamizatzeko.
31. Nafarroako Eskola Kontseiluari buruzko araudia aldatzea, parte-hartzea pluralagoa dela ziurtatzeko.
32. Eskolako curriculum irekia eta malgua izan dadin, aniztasuna barnean har dezan eta doktrinatzaillea izan ez dadin bultzatzea, ikaskuntzak gizartean bizitzeko gaitasuna duten herritar libre, aktibo, kritiko eta arduratsuak hezte bermatzeko.

33. Aniztasuna tratatzeko programei eta gainerako programa espezializatuei ikasleen aukera-berdintasuna bermatzeko behar adina baliabidez esleitzea.
34. Berdintasunaren aldeko eta nolanhiko diskriminazioaren (generoan, etnian, sexu-joeran, erlijioan... oinarritutakoaren) kontrako plan bat prestatzea eta etapa guztietan zeharka ezartzea.
35. Pixkanaka, Iruñeko eta Tuterako hizkuntza-eskola ofizialetako eskaintza eta toki kopurua handitzea eta egoera estrategikoa eta eskaria kontuan izanik beste udalerrri batzuetan ematea hizkuntza-eskolan matrikulatzeko aukera.
36. Hezkuntza Departamentuak eta Kultura Departamentuak lankidetzahitzarmenak egitea, heziketa-helburuetarako, ikasle guztiek izan dezaten eskura ondare historiko, artistiko eta kultural osoa.
37. Aukera-berdintasunaren esparruko jardunbide egokiak sustatzea itunpeko sareko irakasle-postuak betetzeko, Gobernuak ontzat har ditzakeenak. Alor honetan esku hartzeko aukerak zehazteko txosten juridiko bat egingen da sei hilabeteetan.
38. Ikastolen egungo eta etorkizuneko egoera aztertzea, hainbat hamarkadatan euskara normalizatzeko egin duten ekarpena kontuan izanik.

### **2.3. HIZKUNTZA-POLITIKA**

Euskara Nafarroako berezko hizkuntzetako bat da. Hizkuntza gutxitua da, ordea, eta, horregatik, beharrezkoa da hura berreskuratzeko prozesu bat abian jartzea, Nafarroako herritar guztiak aberastuko baititu eta Nafarroako herritar guztiei ekarriko baitie onura.

Urte gehiegiz, liskarrean eta diskriminazioan oinarritu da hizkuntza-politika, eta, horregatik, beharrezkoa da hizkuntza-politika berri bat aplikatzea, herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta hizkuntza-normalizazioaren bidean aurrera egiteko, printzipio hauetan oinarrituz:

- Zeharkakotasuna, politika publiko guztietan eta gizarte-arloan eragina izatea.
- Progresibotasuna, egoera soziolinguistiko bakoitzera egokitzea.
- Eraginkortasuna eta planifikazio eta ebaluazio egokia.
- Parte-hartzea, herritarrekin eta euskara sustatzen diharduten gizarte-eragileekiko elkarlana.
- Hizkuntza-eskubideak bermatzeko bidean aurrera egiteko arauzko babes egokia.
- Gizarteak euskarari prestigioa ematea.
- Askatasuna eta borondatezkotasuna.

Politika publikoen esparruan, gure ustez, Nafarroako Gobernuak hizkuntza-politika proaktibo eta positibo baten sustatzaile nagusia izan behar du, eta nahi duten herritarrak administrazioarekin euskaraz komunikatu ahal izatea ziurtatu.

Gizarte-esparruan, berriz, helduen alfabetatze eta euskalduntzea eta euskarazko hedabideak estrategikoak iruditzen zaizkigu.

## AKORDIOAK

---

1. Arauzko esparru egoki bat garatzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
2. Euskararen legearen azken aldaketa garatzea eta nahi duten ikasle guztiek Nafarroa osoan D ereduan ikas dezaketela ziurtatzea.
3. Hizkuntza-politikaz arduratzen den antolamendu-unitatea dagokion esparruan kokatzea, hizkuntza-politika zeharkakoa izan dadin eta departamentu guztien eta gobernu osoaren lana har dezan barnean.
4. Ekitaldi publiko, harreman eta protokolozko ekitaldi guztietan eta, oro har, foru-erakunde publikoen irudi korporatiboan euskarak presentzia egokia izan dezan ziurtatzea.
5. Komunikazio-estrategia berri bat aplikatzea, berritzailea eta integratzailea, euskarari prestigioa emateko gizartearen begietan eta gizartea euskara jakiteko eta erabiltzeko sentsibilizatzeko.
6. Euskararen Kontseilua berritzea, gizartearen parte-hartze handiagoa izan dadin haren osaeran eta eskumen gehiago izan ditzan.
7. Euskararen egoeraren diagnostiko oso eta eguneratua egitea eta Euskararen Kontseiluak plan estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkor bat diseinatzea, Gobernuaren hizkuntza-politikaren oinarria finkatzeko.
8. Administrazioaren esparruan herritarrei ahal bezainbat euskaraz erantzuten saiatzeko konpromisoa hartzea, haien hizkuntza-eskubideak bermatzeko, eta, horretarako, langileen diagnostikoa egitea eta ele biko ibilbideak prestatzea.
9. Toki-entitateekiko lankidetzaz hitzarmenari heltzea berriro, hizkuntza-politika koordinatzeko eta optimizatzeko eta erakunde publikoen baliabideak trukatzeko, eta euskarazko udal-zerbitzuen sarea handitzea, egungo eta etorkizuneko eskariari erantzuteko.
10. Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko 2015eko kontu-saila berehala erabiltzea eta hainbat urtetarako lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea, euskaltegien egonkortasuna bermatzeko, azken urteetako murrizketak

erremediatzeko eta euskaltegiek beren lana egiteko behar adinako finantzaketa-maila berreskuratzeko.

11. Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko zentro publikoek eskariari erantzuten diotela ziurtatzea.
12. Euskarazko komunikabideen eta euskara hein jakin batean erabiltzen dutenen finantzaketa lehengoratzeko eta hobetzea eta, horretarako, hitzarmenak eta laguntzak emateko deialdiak egitea.
13. Finantzaketa publikoa duten hedabideak programen ehuneko bat euskaraz ematera behartzea, deialdi bakoitzak finkatzen duen ratioaren arabera.
14. Nafarroako herritar guztiek euskarazko hedabideak erabili ahal izatea ziurtatzeko neurriak hartzea.
15. Plan Estrategikoaren esparruan, administrazioak berak kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren esparruan antolatzen dituen jardueretan euskarazko eskaintza nahikoa izan dadila bultzatzea eta toki-entitateek antolatzen dituztenak babestea.
16. Esparru sozioekonomikoan euskara erabil dadin bultzatzea eta enpresek eta beste entitate batzuek prestatzen dituzten euskara-planetarako laguntza-lerro bat sortzea.
17. Euskara hein handi batean ikasten den eta oro har erabiltzen den lekuen funtzio estrategikoa aztertzea eta han politika espezifikoak aplikatzeko aukera aztertzea.
18. Euskara aztertzen eta sustatzen diharduten erakunde, entitate publiko eta ekimen sozialeko erakundeekiko lankidetzaren normalizatzea eta hobetzea: EAE, Euskal Erakunde Publikoa Iparraldeko erakunde, Euskaltzaindia...
19. Hitzartutako neurri guztiek finantzaketa eta giza baliabide nahikoak izateko konpromisoa hartzea.

## **2.4. OSASUNA**

Osasuna giza eskubide bat eta pertsona eta komunitateen bizitzarako funtsezko baliabide bat da, eta, hein handi batean, baldintzatzaile sozialen mendean dago; alegia, zer baldintzatan jaiotzen diren, bizi diren eta lan egiten duten pertsonen, horren arabera da haien osasuna. Egungo krisialdi ekonomikoaren eta hari aurre egiteko ezarritako austeritate-neurrien ondorioz, berdintasunik eza areagotu egin da gizartean eta osasun-arloan, eta, horri aurre egiteko, politika ausartak aplikatu behar dira, helburu nagusitzat pertsonen osasuna eta ongizatea dutenak.

Badakigunez, osasun-sistemek behar bezala funtzionatuko badute, ezinbestekoa da irizpide hauei jarraitu diezaieten: unibertsaltasuna, ekitatea eta elkartasuna, gardentasuna, parte-hartzea, kontu-ematea, eraginkortasuna, zuzentasuna, jardunbide egokiak, etika eta erantzunkidetasuna. Ildo horretan, Gobernuak balio horiek guztiak sustatu nahi ditu, Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioei jarraituz.

Gure ustez, oinarrizko zerbitzu publiko bat da osasuna, eta, hortaz, erakundeek babestu eta sustatu egin behar dute, finantzaketa egokiaren eta gastuaren kontrol eraginkorraren bitartez. Azken batean, osasuna ezin da neurtu errentagarritasun ekonomikoaren ikuspegitik.

Osasun-politikaren helburuak zerbitzuaren kalitatea sustatzea, hari eustea eta osasun-sistema publikoa sendotzea izan behar du, eta, horretarako, baliabide publikoak eraginkortasunez kudeatu behar dira, eta zerbitzuen kanpo-kontratazioan eta pribatizazioan oinarritutako beste eredu batzuei aurre egin.

## AKORDIOAK

---

1. Osasun-arretaren unibertsaltasuna bermatzea, pertsona guztiak erabili ahal izan dezaten, haien egoera administratiboa dena delakoa ere. Ildo horretan, inori atzera ez eragiteko, arauz kanpoko egoera administratiboan daudenei fakturak egiteari utziko zaio. Gainera, egoera ahulean dauden eta baliabide nahikoak ez dituzten pertsonak sendagaiak ez koordaintzeko formulak prestatuko dira.
2. Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuak haurdunaldia borondatez eteteko ebakuntza egiten duela ziurtatzea. Berehala, haurdunaldia borondatez eteteko zerbitzu farmakologikoa emanen da, eta, legealdian zehar, pixkanaka, haurdunaldia borondatez eteteko metodo guztiak ezarriko dira.
3. Gizarteak, sindikatuek eta profesionalek Osasunbidearen kudeaketan eta erabakietan parte hartzearen alde egitea, osasun-kontseiluak biziberritzea eta sustatzea eta haien osaera eta funtzioak aztertzea, erabakiak hartzeko prozesuari horizontaltasun handiagoa emateko, baliabideak koordinatzeko ahalmen handiagoa izateko eta tokian tokiko eta eskualdean eskualdeko beharrei erantzuteko.
4. Aurrekontu-politika nahikoa, eraginkorra eta gardena izatearen alde egitea. Epe laburrean, erosketak egiteko sistema aztertuko da, Osasunbide osorako erosketa-zentral bat izateko bidean aurrera egiteko, baita indarrean dauden kontratu guztiak ere. Gainera, eraginkortasunaren onerako, teknologia berriak kontrolatzeko eta ebaluatzeko agentzia bat sortzea bultzatuko da.
5. Osasun-sistemaren ardatza lehen mailako arreta izatearen alde egitea, argi egin ere:

- a. Behar adinako finantzaketa ematea.
  - b. Lantaldeek kudeatzeko autonomia handiagoa eta erabakitzeke ahalmen handiagoa izatea.
  - c. Kupoak oinarritzko eremu bakoitzaren ezaugarri demografikoetara egokitzea.
  - d. Profil eta funtzioak berriro zehaztea, osasun-langileek administrazio-lanik egin behar ez izatea eta pazienteak tratatzeko denbora nahikoa izan dadin ziurtatzea.
  - e. Lehen mailako arreta integrala eta diziplinartekoa izatea.
6. Indarrean dauden planen garapena aztertzea eta hobetzea (Osasun Planarena, Gaixo Kronikoentzako Planarena, Buruko Osasunaren Planarena...), profesionalek haiek ezartzeko prozesuetan parte hartzen dutela ziurtatzeko, eta haiek gauzatzeko finantzaketa nahikoa dela ziurtatzea.
7. Nafarroako Ospitalegunearen bateratzea finkatzea eta zerbitzu eta atalen bikoiztasuna lehenbailehen amaiaraztea:
- a. Berehala, profesionalekin elkarlanean, larrialdi-zerbitzu bateratuko baliabide, antolamendu eta funtzionamendu faltak eragiten dituen arazoak konpontzeko prozesu bat jartzea abian.
  - b. Sofia Erregina ospitaleko laborategiko jarduera guztiek bere horretan jarraitzeko konpromisoa hartzea, berariaz.
8. Osasunbideko langile zerrendaren neurria ezartzea eta, horretarako, organigrama aztertzea eta epe labur eta ertaineko behar eta lehentasunak finkatzea; berehala, lan-eskaintza publiko batera deitzea, aldi baterako langileen kopurua txikitzeke, oso handia baita, eta langile taldea gaztetzeko. Eta ordezkapenetan eta lanpostuen hutsuneak betetzean egindako murrizketak atzera botatzea.
9. Osasun-kudeatzaileak profesionalizatzearen eta bateraezintasun-araubidea hedatzearen alde egitea. Alde horretatik, kudeatzaileak prozesu gardenen bidez aukeratzea ziurtatuko da, merezimenduan eta gaitasunetan oinarrituz. Gainera, beharrezkoak ez diren zerbitzu- eta atal-burutzak deuseztatuko dira, eta uzten direnak aldi baterakoak, proiektu eta helburu jakinekin lotutakoak eta barne-promoziokoak izanen dira. Azkenik, sistema publikoko profesionalak sistema publikoan bakarrik jarduteko neurriak hartuko dira, eta bateraezintasuna arautuko.
10. Farmazia-zerbitzua eraginkorra izatearen alde egitea eta, horretarako, sendagaiak zentzuz erabiltzea kontrola dadin eta generikoak agindu daitezen bultzatzea; bereziki, arreta-zerbitzu espezializatuan. Alde horretatik, farmazia-industria profesionalen lanean eta paziente-elkarteetan sartzeko aukera mugatuko da. Gainera, irakaskuntza-jardueretan eta nolanhiko beste jarduera

batzuetan parte hartzen duten profesionalek interes-gatazkari buruzko adierazpena egin behar izatea ezarriko da.

11. Baliabide publikoak optimizatzeko eta haiek errentagarri bihurtzeko neurriak hartzea, sektore publikoa sustatzeko eta diagnostiko-probak eta ebakuntzak egiteko itzarote-zerrendak laburtzeko (adibidez, lanaldi arruntaren barruan azpiegiturak, ebakuntza-gelak eta osasun-tresnak erabiltzeko ordutegiaren luzapena eta txandak); eta egun itunpekoak diren zerbitzuak sistema publikoaren bidez emateko aukera aztertzea.
12. Lehen mailako arretaren, arreta jarraituaren eta larrialdietako arretaren erreformari heldzea, herritar guztiei osasun-arretaren eskuragarritasuna, ekitatea eta kalitatea bermatzeko, urrun dauden edo iristen zailak diren landa-inguruneen espezifikotasuna kontuan izanik. Alde horretatik, toki-entitateek, profesionalek, sindikatuek eta profesionalen elkarteek ere hartuko dute parte prozesuan, eremu bakoitzeko beharren diagnostikoan oinarrituz.
13. Osasun-garraioko zerbitzua arautzea eta berrantolatzea, 836/2012 Errege Dekretura egokitzeko, eta zerbitzua gero eta publikoagoa bihurtzeko bidea urratzea, arreta hobetzeko eta zerbitzua herritar guztiek erabil dezaketela ziurtatzeko; bereziki, larrialdietako osasun-garraioari dagokionez.
14. Análisi tekniko, juridiko eta ekonomiko bat egin ondoren, egun pribatizatuta dauden zerbitzuak berriro ere kudeaketa publikoaren esku uztearen alde egitea, argi egin ere, eta, horretarako, lehenetsunaren egutegi bat finkatzea. Lehenetsunaren artean, aipatzekoa da Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua sektore publikora itzultzeko beharra.
15. Entitate pribatuekiko itun eta hitzarmen guztiak aztertzea, subsidiarioritasun-printzipioan eta baliabide publikoak optimizatzeko printzipioan oinarrituz, sistema publikoa sendotzeko eta sistema pribatura bideratzen diren kasuak eta itunak mugatzeko eta arrazionalizatzeko.
16. Buruko osasuneko sareak ematen duen arreta-maila optimizatzea eta haren baliabideak lehen mailako arreta-sarearekin koordinatzea –bereziki, buruko arazo arrunt edo ez oso larrien jarraipena egiteko– eta buruko osasun arazo larriak dituztenei laguntza jarraitua ematea, maila guztietan.
17. Sistema publikoaren bidez tratamendu aringarriak ematea, patologia guztietarako, Nafarroa osoan koordinatuta, eta, horretarako, profesionalak tratamendu aringarrietan treba daitezen bultzatzea.
18. Esparru publikoan medikuntza-fakultate bat sortzea aztertzeko eztabaida politiko eta sozialari heldzea.
19. Osasun publikoa sustatzea, prebentzioan eta osasunaren sustapenean oinarritutako osasun-politikaren ikuspegitik –osasun-sistemako jarduna bideratu eta arrazionalizatu beharko luke osasun-politika horrek–.

- 20.2/2010 Legea arauz garatzea, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzkoa; bereziki, hezkuntza-arloa eta curriculum bidezko garapena nabarmenduz.
21. Emakumeen arreta-zentroak emakume zein gizonei familia-orientabidea eta sexu-heziketa emateko zentro bihurtzea –sexu-orientabidea, sexu-heziketa eta heziketa afektiboa emateko, lan komunitarioa egiteko eta programa espezifikoak prestatzeko zentro integralak izatea– eta gazteentzako berariazko zentroak sortzeko aukera aztertzea.
22. Sistema publikoaren barruko ugalkortasun-tratamenduak eta laguntza bidezko ugalketa-teknikak pertsona guztiek erabili ahal izatea ziurtatzeko neurri eraginkorrak hartzea, haien sexu-joera edo egoera zibila dena delakoa ere.
23. Politika guztien esparruan osasuna sustatzeko konpromisoa hartzea eta, Nafarroako Gobernuaren lege-proiektu nagusiek osasun-gaietan dituzten ondorioei buruzko txostenak sustatuz, Nafarroako Gobernuaren politika publiko guztiek osasun-gaietan dituzten ondorioak aztertzea.
24. Profesionalei irakaskuntza emateko aurrekontua zuzkitzea, osasun-teknologiaren alorreko enpresetatik kanpo, eta teknologiarako aurrekontuaren ehuneko bat irakaskuntza-funts bat sortzeko erabiltzea eta osasun-sistema publikoaren bidez kudeatzea funtsa.
25. Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuaren zuzendaritza, kudeaketa eta kontrola publikoak izatearen alde egitea, argi egin ere, eta Institutuan parte hartzen duten aldeei berariaz jakinaraztea; eta Nafarroako Osasun Sistemaren barruan ikerketa biosanitariorako plan zientifiko bat prestatzea.
26. Sektore publikoko langileen kontingentzia profesionalen tratamendua publiko bihurtzearen ondorioei buruzko azterlan bat egitea, dagozkion eragile guztiak kontuan izanik (tartean, Nafarroako Lan Osasunaren Institutua eta mutualitateak).
27. Nafarroako Ospitalegunean egonaldi laburretarako unitate bat sortzeko eta pazienteak etxean ospitaleratzeko oheen kopurua handitzeko aukera aztertzea.
28. Odol- eta ehun-banku publiko batekiko konpromisoari eustea –bere burua aski izateko joera izan beharko luke bankuak, Europako azken direktiben ildotik–; odol-bankuaren, ehunen eta transplanteen kudeaketaren, jardunaren eta finantzaketaren kontrola eta gardentasuna bermatzeko neurriak sustatzea; eta gaia ikuskatzea.
29. Ikuspegi juridiko eta ekonomikotik, aztertzea ea komeni den Nafarroako Unibertsitateko Klinikarekin hango langileei eta haien senideei osasun-laguntza emateko sinatutako hitzarmenari eustea.



## 2.5. BERDINTASUNA

Emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna da berdinen arteko elkarbizitza eraikitzeke eta diskriminazio eta indarkeria sexista amaitzeko bide bakarra.

Gure helburua politika publikoak eraldatzea da, emakumeen eta gizonen eskubide-eta aukera-berdintasunaren aldeko jarrera irmoaren ikuspegitik, emakume guztiek baldintza sozial eta ekonomiko duinak dituztela ziurtatzeko.

Horretarako, nolana ere, beharrezkoa da egiturazko aldaketa bat gertatzea gizartean: emakumeak ahalduntzen laguntzea eta esparru publikoan eta erabakiak hartzen diren eremuetan parte har dezaten bultzatzea. Alde horretatik, sakoneko neurrietako bat berdintasunari buruzko foru-araudia berriro diseinatzea izanen da, benetako eragina izan dezan emakumeen egoeran, emakumeek eta gizonek hein berean izan dezaten zaintza-lanen erantzukizuna, emakumeen eta gizonen soldaten arteko berdintasunik eza eta lan-arloko diskriminazioa desagertarazteko eta berdinen arteko elkarbizitzan eta indarkeria sexistarik ezean oinarrituz eraiki dezagun gizartea. Horretarako, era berean, beharrezkoa da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna administrazioko egitura eta prozeduretan txertatzeko estrategia bat sustatzea.

## AKORDIOAK

---

1. Berdintasunerako Nafarroako Institutua berreskuratzea eta zeharkako bihurtzea, berdintasun-politikak politika publiko guztien parte izan daitezen.
2. Gobernuaren proiektuek eta garrantzi berezia duten arau eta planek genero-gaietan dituzten ondorioei buruzko txostenak egitea eta haien egiteaz arduratzen diren teknikariak behar bezala trebatzea.
3. Hizkuntza ez-sexista eta integratzailea erabiltzea Gobernuaren jardunean, araudiak dioenarekin bat.
4. Ebaluazio-prozesu baten ondoren -partaidetza izanen da haren ardatza-, genero-berdintasunerako foru-lege bat egitea, mugimendu feministarekin, elkarteekin eta tokiko eragileekin elkarlanean, eta berdintasun-plan estrategiko bat onartzea legealdi honetan.
5. Enpresa publiko eta pribatuei berdintasun-planak betearazteko neurriak hartzea; tartean, diagnostikoa egitea aurrez, eta ebaluazioa ondoren (2007ko legea).
6. Lan-merkatuko eta emakumeen eta gizonen soldaten arteko berdintasunik eza txikitzeke neurriak hartzea; kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan klausula

sozialak eta genero-klausulak ezar daitezzen bultzatzea; eta enpresa publikoetan, zuzendaritza-postuetan eta goi-mailako karguetan emakumeen eta gizonen parekotasunerako legezko irizpideak betetzen direla ziurtatzea.

7. Emakumeek beren generoa, kultura, etnia, adina, aniztasun funtzionala, klase soziala edo joera sexuala dela-eta jasaten duten askotariko diskriminazioa gainditzeko neurriak hartzea.
8. Etxeko langileak Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartzea bultzatzeko neurriak hartzea: sentsibilizazioa, pizgarriak eta ikuskapena.
9. Emakume-elkarteek, talde feministek eta berdintasunaren aldeko gizon-taldeen plan eta politikak diseinatzeko eta ebaluatzen parte hartzea eta horiek gauzatzeko beharrezko baliabideak jartzea.
10. Esparru publikoan eta hedabideen esparruan jardunbide egokiak eta haietan trebatzeko prestakuntza sustatzea, emakumeen eta gizonen irudi ez-estereotipatua eman dadin.
11. Berehala, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legea aplikatzeko plan estrategikoa prestatzea, behar bezainbeste baliabide dituen. Alde horretatik, lan-mahai bat eratuko da (mugimendu feministak, tokiko eragileek eta genero-indarkerian adituek parte hartzeko tresna egonkor bat), orain arteko politikak ebaluatzeko eta proposamen berriak egiteko.
12. Foru-administrazio osoan berdintasun-unitateak mantentzea eta sustatzea.
13. Bitarteko tekniko eta pertsonalak berdintasun-planak sustatzeko nahikoak direla ziurtatzea –horretarako, dagokion garrantzia emanen zaio berdintasun-teknikariaren sareari– eta Berdintasunaren aldeko Udalerrien Sarea sortzea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren esparruan.
14. Genero-indarkeriaren esparruan, behar duten emakumeek kulturarteko bitartekaritza-zerbitzuak eta interpretazio- eta itzulpen-zerbitzuak erabil ditzaketela ziurtatzea.
15. Osasun-arloan lan egiten dutenek (bereziki, buruko osasunaren esparruko langileek) generoaren ikuspegitik lan egin dezaten bultzatzea eta horretarako prestakuntza egokia dutela ziurtatzea.
16. Indarrean dagoen araudia betetzea (gizarte-zerbitzuen zorroa) emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzeko eta hari aurre egiteko baliabideak aztertzeari, hedatzeari eta hobetzeari dagokionez (harrera-etxeak, etxebizitzak, laguntza emateko lantalde integralak, udalen prebentzio-baliabideak...), Nafarroa osoan.
17. Berme-funts bat sortzea genero-indarkeriaren biktima diren eta diru-sarrerarik ez duten emakumeentzat.

18. Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako aholkularitza juridikoa eta Justiziako Gizarte Zerbitzuaren arreta psikologikoa mantentzea eta bermatzea, Nafarroa osoan.
19. Esplotazio sexualari eta emakumeen salerosketari aurre egiteko neurri eta programa integralak abiaraztea, prostituzioan aritzen direnek osasun- eta gizarte-zerbitzu publikoak erabil ditzaketela ziurtatzea eta eztabaida pitzaraztea gizartean, estigmatizazioa amaitzeko.
20. Emakume guztiek metodo antikonzeptibo guztiak erabil ditzaketela ziurtatzea eta biharamuneko pilula ematea lehen mailako arreta-zentro guztietan eta larrialdietako zentro guztietan.
21. Baterako hezkuntza, balioen hezkuntza eta heziketa afektibo eta sexuala sartzeko eskola-programetan, ikasleek bizi sexual eta afektibo osasuntsu eta arduratsua izatea bultzatzeko eta jarrera matxista eta diskriminatzaile ez izateko.
22. LGTBQ kolektiboaren benetako eskubide-berdintasunaren alde egitea; 12/2009 Foru Legea betetzea eta hobetzea, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa; LGTBQfobiaren kontrako lege integral bat onartzea; LGTBQ kolektiboari laguntza emateko berariazko zerbitzu bat sortzea; eta LGTBQfobiaren kontrako hezkuntza-, gizarte- eta kultura-programak gauzatzea, zeharka, erakunde guztietan.
23. Zaintza-lanei buruzko itun instituzional bat egitea, Nafarroako Gobernuako departamentu guztiek pertsonen zaintza eta beharrak beren politika, plan, programa eta jarduketara guztien muinean kokatzeko konpromisoa jasotzeko.
24. Bateragarritasunaren aldeko tokiko itunak babestea, haiei eustea eta haietan sakontzea.
25. Nafarroako Gobernuaren barneko berdintasun-plana prestatzea, negoziazio kolektiboarekin ildotik, familia-eredu berriak onartzeko eta aurreko senideak (gurasoak eta abar) zaintzeko eskubideak zabaltzeko, eta legedia betetzea.

## **2.6. GAZTERIA**

Gazteria-politiken bidez, Aldaketaren Gobernuak gazte autonomo gaituak garatzea bultzatu nahi du, berdintasun- eta askatasun-balioak dituztenak eta inguruarekin konprometituta daudenak. Gure ustez, gainera, gazteria-politikek zeharkakoak izan behar dute, Gobernuaren jardun osoan izan dezaten eragina.

---

Gazteek beren eskubide eta beharren subjektu aktibo izan behar dute. Horretarako, gazteek gizartean eta politikan parte hartu ahal izateko beharrezko mekanismoak antolatuko ditugu.

## AKORDIOAK

---

### **Egitura instituzionala**

1. Zeharkako organo autonomo bat sortzea, gazteria-politika integralak sortzeko eta koordinatzeko, gazteria-alorrak beharrezkoa duen zeharkakotasunaren ikuspegitik.

Horretarako, gazteriaren egungo egoeraren diagnostikoa egingen da, eta, diagnostikoaren emaitzen arabera eta hark identifikatzen dituen eskaera eta/edo gabezien arabera, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren eta gazteria-politikan diharduten teknikarien egitura aldatuko da.

2. Udalek gazteentzako programak antolatzeko laguntzak ematea berriro, haiek hobetzea eta programen jarraipena egitea eta hobetzea; eta tokiko eta eskualdeko gazteria-planek beharrezko finantzaketa dutela ziurtatzea.
3. Gazteriaren Behatokia sustatzea, gazteen egoeraren diagnostikoa egiteko eta gazteriari buruzko berariazko analisi eta azterketak egiteko.
4. Gazteria-mahai teknikoak sortzea, Nafarroa osorako gazteria-politikak aztertzeke, diagnostikatzeko, proposatzeko eta kudeatzeko.
5. Nafarroako Gazte Kontseiluaren diagnostikoa egitea eta hura sortzen duen foru-dekretua aldatzea, elkarleen eta lurraldearen egoera berrira egokitzeko, eta mota eta neurri guztietako elkarteak sortzeari bide ematea, egungo mugak gainditzea eta lurralde osoan elkarteak osa daitezen bultzatzea.

Erakunde autonomoa arduratuko da Europak gazteria-politiketarako ematen dituen laguntzak kudeatzeaz, zuzenean.

### **Emantzipazioa**

6. Gazteriaren Behatokiaren barruan, emantzipazio-atal bat sortzea berariaz, gazteen benetako egoeraren eta beharren diagnostikoa egiteko.
7. Nafarroako Gazteriaren Institutuak diagnostikatzen dituen egoeraren eta beharren arabera, gazteak emantzipatzeko politikak koordinatzea; gazteek lana aurkitzeko aukerak hobetzeko prestakuntza-programak proposatzea; eta etxebizitza-programak proposatzea.

### **Prestakuntza**

8. Gazteek lana aurkitzeko aukerak hobetzeko prestakuntza-programa bat sortzea, beste atal batzuekin koordinatuta, gazteen behar eta lehentasunetara egokituta, Emantzipazioaren Behatokiaren diagnostiko eta azterlanak kontuan izanik.

### **Enplegua**

9. Ekintzailetza eta kooperatibismoa sustatzeko mekanismoak sustatzea, hainbat alor kontuan izanik, hala nola I+G+B eta landa-ingurunea. Landa-ingurunean, zehazki, belaunaldien arteko erreleboa bermatzea izanen da helburua, eta, horretarako, laguntzak emanen zaizkie gazteei, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak mantentzeko.
10. Gazteak elkartzeko, sortzeko eta ekiteko gune publikoak lagatzea eta guneak administrazioaren eta gazteen artean elkarrekin kudeatzeko ereduak ezartzea.
11. Kanpora joan behar izan dutenak itzultzeko ekimenak babestea.
12. Bekadunen lan- eta gizarte-eskubideak aitortzeko beharra babestea, foru-eskumenen barruan bekak eta lanbide arteko gutxieneko soldata parekatzea, eta praktikak egiteko kontratua gehienez ere sei hilabetekoa izatea eta soldata dagokionaren % 80koa izan dadila ziurtatzea.
13. Hezkuntza-sistemara itzultzen direnei lana eta ikasketak bateratzen laguntzea eta, horretarako, Batxilergoan irakasgai batzuetan bakarrik matrikulatzeko aukera ematea.

### **Etxebizitza**

14. Alokairu sozialerako etxebizitza publikoen sare bat sortzea eta etxebizitzaren ehuneko bat gazteentzat gordetzea, eskatzaileen ezaugarri soziolaboralak eta adina kontuan izanik; tokian-tokian eta eskualde bakoitzean etxebizitza bat alokatu nahi dutenen poltsak sortzea (etxebizitza errentan hartu edo utzi nahi dutenenak); eta etxebizitza hutsak gazteak emantzipa daitezzen erabiltzeko bitartekaritza-lana egitea.
15. Etxebizitza-politikak zehaztean elkarbizitza-eredu berriak kontuan hartzea; adibidez, besterik gabe elkarrekin bizi direnena.

### **Garapen pertsonala eta kolektiboa**

16. Hezkuntza- eta osasun-atalekin Nafarroako gazteen garapen osoa ziurtatzeko politikak koordinatzea eta, bereziki, gai hauei begiratzea: sexu-heziketa, bizimodu osasuntsuen sustapena, genero-indarkeriaren prebentzioa eta/edo tratatu onetan oinarritutako harremanen sustapena, eta drogazaletasunaren prebentzioa.
17. Nafarroako Drogazaletasun Plana hobetzea, garatzea eta finantzatzea, ardurak berregituratuz, eta Plana egungo egoerara egokitzea.

## **Gazteen parte-hartzea eta aktibazioa**

18. Egungo arau- eta lege-corpora eguneratzea, garatzea eta Nafarroako gazte-elkarteen eta lurraldearen egoera berrira egokitzea –bereziki, Gazteriari buruzko Foru Legea–; gazteek maila eta lurralde-eremu guztietan parte har dezaketela eta elkarteak osa ditzaketela ziurtatzea; tokiko gazteria-kontseiluak arautzea; eta gazteria aktibatzeke berariazko programak sortzea.
19. 2016-2020 aldirako gazteria-estrategia prestatzea, gazteria-politiketan diharduten eragile guztien adostasunaz eta parte-hartzeaz, eta strategiak hartzaile dituen eragileei hura prestatzen parte hartzeko aukera ematea.
20. Ikasle-elkarteak osatzea bultzatzeko mekanismo egokiak sortzea.

## **Kultura eta aisialdia**

21. Sormena sustatzeko kultura-politikak aplikatzea eta, horretarako, gazteek berek eta gazteek eta administrazioak kudeatzen dituzten guneak erabiltzea; topagune artistiko eta kulturalak sortzea eta ekimen horiek behar bezala gauzatzeko eta ezartzeko beharrezko baliabideak jartzea, eskariaren eta sortu nahi den kalitate-eskaintzaren arabera; eta, betiere, kulturartekotasuna kontuan hartzea.
22. Gazteei diru-laguntza kulturalak emateko programa baterako aurrekontu-sailak sortzea.
23. Nafarroako liburutegi publikoen ordutegiak luzatzea, benetako beharrak eta eskaria kontuan izanik.
24. Kulturartekotasuna bereziki sustatzea.
25. Gauari buruzko itun bat egiteko beharrezko mekanismoak abiaraztea, elkarbizitza egokia bermatzeko gaueko aisialdiak garrantzi handia duen lekuetan, eta Ikuskizun publiko eta josteta-jarduerak arautzen dituen Foru Legea egokitzea eta eguneratzea, kasuan kasuko eragileek parte hartzen duten prozesu baten bidez.

## **2.7. KIROLA**

Berlingo Adierazpena hartuko dugu printzipiotzat. Gorputz-hezkuntzaz eta kirolaz arduratzen diren ministro eta goi-funtzionarioen nazioarteko konferentzian onartu zuten adierazpen hori, Berlinen, 2013ko maiatzean, eta, dioenez, pertsona orok izan behar du kirolean aritzeko eta parte hartzeko oinarritzko eskubidea, haren jatorri etnikoa, generoa, sexua, adina, oztopoak, jatorri kulturala, jatorri soziala, baliabide ekonomikoak, genero-identitatea edo joera sexuala direnak direla ere.

Gure ustez, ariketa fisikoa egitea eta kirolean aritzea herritarren eskubide bat da, behar dutenari eta espero dutenari erantzuten diona, baina librea eta borondatezkoa izan behar du. Hala ere, mesedegarria da funtsezko hainbat ikuspegitatik (adibidez, osasunaren ikuspegitik), eta, hortaz, herritarrak ariketa fisikoa egitera bultzatzeko planak egin behar dira; alegia, kirola sustatu behar da, oinarritzko ardatz bat baita bizi-kalitatea hobetzeko.

## AKORDIOAK

---

### **Oinarri-kirola, adiera zabalean (adin guztietako herritarrena)**

1. Adin txikikoek askotariko jarduerak egin ditzaten eta hirugarren adinekoak kirolean ari daitezen bultzatzea.

### **Boluntarioritza-lana**

2. Boluntarioritza-lana arautzea eta sustatzea, boluntarioak (entrenatzaileak, zuzendariak, epaileak...) babesteko plan bat prestatzea eta boluntarioen eta kirol-entitateen arteko harremana arautzeko esparrua eratzea.

### **Azpiegiturak**

3. Egungo kirol-instalazioak modernizatzeko eta haien erabilera optimizatzeko plan bat prestatzea, azpiegituren kudeaketaren bideragarritasuna eta hobekuntza aztertzea eta kirolean aritzeko ibilbideak prestatzea.
4. Instalazio publikoak eta finantzaketa publikoa izan duten instalazioak erabiltzeko aurrerabideak ematea eta ordaintzeko moduko tasak sustatzea.

### **Diru-laguntzak**

5. 11/2005 Foru Legea aztertzea eta egokitzea, diru-laguntzei buruzkoa, eta irabazi-asmorik gabeko entitateentzako diru-laguntzei buruzko berariazko atal bat sartzea; tartean, programa bakoitzerako moduluak.
6. Hainbat urtetarako diru-laguntzak emateko plan estrategiko bat egitea eta sistema garantista bat ezartzea, diru-laguntzak emateko prozeduren gardentasuna eta kontrola bermatzeko, baita finkatutako helburuen lorpenarena ere.
7. Eliteko kirol-proiektuetarako diru publikoaren zenbatekoa mugatzea eta, horretarako, zuzeneko laguntzak eta zerga-kenkarien bidez ematen direnak hartzea kontuan; betiere, gardentasuna bermatuz.
8. Nafarroako Gobernuak kirol-gaietarako jartzen duen aurrekontua jarduera moten arabera ehunekotan banatzen dela ziurtatzea.

### **Kudeaketa**

9. Kirol-jarduera eta -instalazio publikoen kudeaketa publikoaren alde egitea, argi egin ere, eta, nahiz eta zerbitzu jakin batzuk kanpoan kontratatu, kudeaketa publikoa izan dadin babestea.

### **C.A. Osasuna**

10. Araudia aldatzea, instalazioen erabilera beste entitate batzuei laga ahal izateko. Alde horretatik, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak baimendu egin beharko ditu jarduera-plana eta tasak.

### **Kirol-federazioak**

11. Finantzaketa egonkorra dela ziurtatzeko arauak ematea, lehentasuna kudeaketa egokiari emateko irizpideei jarraitzen dieten hitzarmenen bitartez – aukeran, hainbat urtetarako izan daitezke hitzarmenok-.

### **Nafarroako Kirol Kontseilua**

12. Nafarroako Kirol Kontseilua sustatzea, gizartea ordezkatzeko duen organo bat den aldetik, eta kirol-arloko eragileei Kontseiluan parte hartzeko aukera ematea, Parlamentuko Kirolaren Mahaiaren ondorioak kontuan izanik, salbu eta babesari dagokionez. Babesari dagokionez, hain zuzen ere, programa honek berariaz dioena beteko da.

### **Kirol-klubak**

13. Klub eta federazioek kontabilitate-, zerga- eta lan-gaietan dituzten betebeharrak sinplifikatzea.

### **Babesa**

14. Interes orokorrekotzat hartzen diren kirol-ekitaldiak babesteko pizgarriak ematea; ez, ordea, irabazi-asmoa dutenak babesteko pizgarriak.
15. Salbuespen-bitarteak ezartzea babesleentzat, programen eta haien kostuaren arabera.

### **Beste batzuk**

16. NICDOko kirol-enpresa publikoen funtzioak Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren esku uztea.
17. Bertako kirolak sustatzea.
18. Nafarroako kirolariek nahi duten selekzioetan parte har dezaten normalizatzea.
19. Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroaren ezaupide eta programak herritarrei helaraz dakizkien bultzatzea.



20. Irabazi-asmorik gabeko kirol-entitateen barruan oinarri-kirolean aritzen direnentzako osasun-arreta Nafarroako Osasun Sistemaren beste prestazio bat dela jo dadin bultzatzea.
21. Kirolarien osasunaren alorreko lidergoa publikoa izateko konpromisoa hartzea, haiei ematen zaien osasun-laguntza ez dezaten aseguru pribatuek kontrola.

## **2.8. KULTURA**

Kultura-politikak bi helburu izan behar ditu.

Batetik, balioak, bizimoduak eta pentsamoldeak sustatu behar ditu, gizarteari kohesioa ematen diotenak eta aniztasunean, askatasunean, sormenean, justizia sozialean, inklusioan, parte-hartzean eta demokrazian oinarritutako elkarbizitza-esparruak eratzen dituztenak.

Bestetik, ahal bezainbat zabaldu behar du kulturaren alde sortzaile eta berritzailea, gizarte garaikideek aurrez aurre dituzten erronkei erantzuteko. Ildo horretan, kultura-politikaren erronka berria komunitatea gararaztea da, garapena hurbiltasunean eta parte-hartzean ardaztuz.

Printzipio hauek gobernatuko dute kultura-politika:

- Gizartearen lehenetako bat da kultura, eta garapen sozioekonomikoaren eragile izan behar du lurralde osoan.
- Kultura-eskubideak oinarritzko giza eskubideak dira, eta haiek erabiltzeak kulturaren eta komunitatearen parte hartzea ziurtatzen du.
- Aniztasun kulturala Nafarroaren ondasun bat da. Kultura guztiak duinak dira, hein berean, eta beharrezkoa da kultura guztiak ezagutzeko, babesteko eta sustatzeko neurri proaktiboak hartzea: bai bertako kultura (tartean, euskal kultura), bai Nafarroan harez gain daudenak.
- Beharrezkoa da plangintza estrategiko bat egitea, kultura politika publikoen erdigunean kokatzen laguntzeko.
- Beharrezkoa da herritarrek kulturaren parte hartzea eta hura demokratizatzea. Ikuspegi sozialetik planteatu behar da kultura-politika, eta parte hartzeko aukera eman behar zaie parte hartzeko aukera gutxien duten taldeei.

## **AKORDIOAK**

---

1. Nafarroan kulturari duintasuna ematea berriro eta aurrekontu duin bat jartzea Kultura Departamenturako: kulturaren inbertitzea, garapen sozioekonomikoaren eragile den aldetik.
2. Kudeaketaren gardentasunean oinarritutako gobernantza-eredu berri baten alde egitea, argi egin ere, eta kultura-azpiegitura eta -enpresa publikoak kudeatzeko ereduak ikuskatzea.
3. Aniztasunean eta lidergo partekatuan oinarritutako parte-hartzearen alde egitea, argi egin ere, eta Kulturaren Nafarroako Kontseilua sortzea –kulturaren esparruko eremu eta sentsibilitate guztiek hartuko dute parte Kontseiluan, eta guztiek izanen dute ordezkari-tza–; besteak beste, kultura-plan estrategiko bat egiteko, Kontseiluak berak diagnostikatzen dituen egoeraren eta beharren arabera.
4. Kulturaren Nafarroako Behatokia sortzea.
5. Inguruko kulturaren alde egitea, irmoki egin ere; eskualde-mailako ekimenak babestea; ikastaroak eta lantegiak sustatzea; etab.
6. Sorkuntza artistikoa sustatzea, alderdi guztietatik; sortzeko leku edo “artelekuak” sustatzea; kultura eta arte garaikidearen laborategi bat sustatzea, honako hauek biltzeko: sortzeko lekuak eta prestakuntza-ikastaro eta -jarduerak antolatzen dituzten azpiegiturak, erakusketak eta tokiko artistek teknologia berriak erabiltzeko aukera.
7. Kulturgileek berek kudeatzen dituzten guneak sustatzea eta horretarako bide ematea, eta zentro soziokultural guztiak parte-hartzearen bidez kudeatzea.
8. Mezenasgoaren Legea aztertzea; mezenasgoa eta babesa bereiztea; baldintza-berdintasuna bermatzea, irizpide objektiboekin jarraituz; pizgarri fiskalak aldatzea; entitate onuradun mota gehiago izatea; etab.
9. Kultura-gaietarako finantzaketa duina dela ziurtatzea eta Nafarroako askotariko kultura-enpresa eta -ekimenetarako laguntzak aztertzea eta sortzea.
10. Entitate artistiko eta kulturalerako hitzarmenen egoera aztertzea eta, egonkortasun finantzarioa beharrezkoa den kasuetan, hainbat urtetarako finantzaketa-hitzarmenak sinatzeko aukera aztertzea.
11. Ondare artistiko kulturala zaintzeko eta sustatzeko neurriak hartzea.
12. Herritarrek euskarazko kultura-eskaintza balia dezaketela ziurtatzeko neurriak hartzea.
13. Administrazio publikoan kultura librea gara dadin bultzatzea (software librea, etab.).

14. Legealdi honetan Parlamentuan batzorde txostengile bat osatzeko konpromisoa hartzea, gizarte- eta kultura-arloko eragile eta entitate ugari osatua, kultura-eskubideen foru-lege bat diseinatzeko eta egiteko.
15. Liburutegien plan bat prestatzea, lehentasuna udal-liburutegiak lurraldean hedatzeari ematen diona; UNESCOk gomendatzen duen ratoria iristea legealdi honetan: 2,5 liburu biztanleko; liburutegiei baliabide ekonomiko propioak esleitzea, eskaintza egokitu ahal izan dezaten ingurunearen ezaugarrien arabera; liburutegi guztien katalogazio informatikoa amaitzea; liburua ez diren euskarri gehiago eta gaztelaniaz ez dauden funts gehiago eskaintzea (bereziki, euskarazkoak eta etorkinen gehiengoaren hizkuntzetakoak); Braille sistema erabiliz argitaratutako funts gehiago eskaintzea; liburutegietan haur eta gazteentzat dauden txokoetan jardura osagarriak programatzea, haurrak literaturara eta ezagutzara erakartzeko; eta liburutegien ordutegia luzatzea.
16. Titulu ofiziala eskuratzeko balio ez duten musika- eta arte-ikasketak ematen dituzten edo eman nahi dituzten udalekiko hitzarmenek finantzaketa nahikoa dutela ziurtatzea (udaletako musika- eta arte-eskolak).
17. Askotariko kultura-kudeatzaileen etengabeko prestakuntza integrala egokia izateko konpromisoa hartzea, ikuspegi garaikide batetik.
18. Kultura-arloan lan egiten dutenen lan-baldintzak onartzeko eta duintzeko neurriak hartzea.
19. Kulturaren Vianako Printzea saria aztertzea eta monarkia kanpoan uztea.

### **3. EKONOMIA, ENPLEGUA ETA ZERGA-SISTEMA, INDUSTRIA, MERKATARITZA, TURISMOA ETA LAN-HARREMANAK**

#### **Zerga-sistema eta zerga-iruzurra**

1. Bilketa hobetzeko zerga-erreforma bat prestatzea eta onartzea 2015ean, sistemaren progresibotasuna azpimarratuz, 2016an sar dadin indarrean.
2. PFEZaren erreformaren ardatz nagusiak
  - 2.2. Eskala orokorraren progresibotasuna hobetzea eta azken bitarteetako tasa marjinalak igotzea (azken bitartekoa, % 50 gutxienez).
  - 2.3. Eskala berezia (aurrezkiena) aldatzea, progresiboago bihurtzea eta tasa marjinalik altuena igotzea.
  - 2.4. Gutxieneko pertsonalen eta familiarren arabera oinarri-murrizketak kuotaren kenkari bihurtzea.

- 2.5. Lan-etekinen araberrako kenkariaren progresibotasuna hobetzea.
  - 2.6. Pentsio-planerako eta antzekoerako ekarpenak egiteko zerga-pizgarrien murrizketa ezartzea erreformaren helburutzat.
  - 2.7. Ohiko etxebizitza erosteko zerga-pizgarriak kentzea, aurrez egindako erosketen gainekoei eutsita.
  - 2.8. Neurri bakoitzak generoaren ikuspegitik dituen ondorioak aztertzea eta, beharrezkoa bada, zuzenketa-neurriak proposatzea.
3. Sozietateen gaineko zergari dagokionez, zerga-pizgarriak aztertzea eta mugatzea; betiere, pizgarriek kalitateko enplegua sortzearekin eta finkatzearekin duten harremana kontuan izanik. Alde horretatik, honako hauek izanen dira erreformaren ardatz nagusiak:
- 3.1. Interes aldarreko inbertsio-sozietateen lehentasunezko trataera deuseztatzea (% 1eko tasa nominala) eta enpresak sustatzeko sozietateen araubidea aldatzea, Nafarroan egin behar izan ditzaten inbertsioak.
  - 3.2. Tasa nominal berriak ezartzea (oro har, % 28koa; enpresa txiki eta ertainentzat, % 23koa; eta mikroenpresa txiki eta ertainentzat, % 19koa).
  - 3.3. Tasa efektiboak ez aplikatzea likidazio-oinarriari, zergapetze bikoitzaren ondorengo zerga-oinarriari baizik.  
  
Zoru-tasa efektiboa % 13koa izanen da. Nolanahi ere, I+G+B proiektuetarako kenkariaren trataera aztertuko da, baita enpresa txiki eta ertainek eta mikroenpresa txiki eta ertainen zoru-tasa efektiboa jaiste ere.
  - 3.4. I+G+B proiektuetarako zerga-kenkariari eustea, formatu berean.
  - 3.5. Inbertsio-erreserba bereziaren eraginkortasuna aztertzea. Bereziki, hitzartutako inbertsioak egiteko aukerez hausnartuko da; adibidez, balio-bizitza amaitzeagatik aktiboak berritzeko egin beharreko inbertsioez.
  - 3.6. Enplegua sortzeagatik kenkariaren zenbatekoei eustea, sortutako enplegua iraunarazteko konpromiso handiagoa harrarazita, eta sortutako enpleguaren kalitatearen inguruko gaiak hartzea kontuan hura kalkulatzeko; bereziki, urteko ordainsaria.
  - 3.7. Inbertsioengatik kenkariaren eraginkortasuna aztertzea eta, bereziki, balio-bizitza amaitzeagatik aktiboak berritzeko egin beharreko inbertsioetan dituen ondorioez hausnartzea.

- 3.8. Zerga-oinarri negatiboak eta zerga-kenkariak konpentsatzeko gehieneko epea laburtzeko aukera aztertzea.
- 3.9. Nazioarteko esperientziak eta proposamen akademikoak biltzeko azterlan bat egitea legealdi honetan, sozietateen gaineko zergaren ordezkiz fakturazioaren gaineko zerga sortzeko ildoan.
4. Ondarearen gaineko zergaren erreformaren ardatz nagusiak:
  - 4.1. Egun indarrean dauden gutxieneko salbuetsia eta zerga-ezkatua murrizteko aukera aztertzea eta enpresa-partaidetzen trataera aztertzea.
  - 4.2. Ordaintzea ez dagokien subjektu pasiboek ondarearen aitortzea egin behar izateko gutxieneko aktiboaren bolumena 1.500.000 eurotik 1.000.000 eurora jaitea.
5. Hondakinak isurtzearen eta erraustzearen gainean kanon bat ezartzeko aukera aztertzea.
6. Nazioarteko esperientziak eta proposamen teknikoak biltzeko azterlan bat egitea legealdi honetan, finantza-entitateen gaineko presio fiskala handitzeko aukerak aztertzeko.
7. Europan eta erreferentziazko beste herrialde batzuetan zerga-sistemak diseinatzeko eta ezartzeko joeren jarraipen iraunkor eta zorrotza egitea – besteak beste, lanaren eta aurrezkien errentek eta ondareak ordaindu beharreko zergei dagokienez– eta jarrera proaktibo eta berritzailea izatea betiere, aipatutako printzipioetan oinarrituz.
8. Nafarroaren autogobernu fiskalerako mekanismoak sendotzea PFEZari eta sozietateen gaineko zergari dagokienez, ekoizpen-eredu jakin bat ezartzeko pizgarriak eman ahal izateko; hain zuzen ere, garapen jasagarria, berrikuntza, ekintzailtza eta enplegua sustatzen dituen ereduak.
9. Zerga-iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren kontra areago borrokatzea:
  - 9.1. Alor horretan espezializatutako giza baliabideak nabarmen ugartzea legealdi honetan. Alde horretatik, dagozkion prozesuak legealdiko lehenengo urtean abiaraziko dira, eta txosten juridikoak eskatuko dira, behin-behineko konponbide azkarragoak aztertzeko.
  - 9.2. Aurreko legealdian ezkutuko ekonomiari buruz egindako azterlanak eguneratzea eta, ahal den heinean, Nafarroako adierazleak sartzeko (ahal dela, ez proiektatzea Estatuko zifrak).
  - 9.3. Berehala, 2014-2017 aldian iruzurraren kontra borrokatzeko planaren ezarpen-maila ebaluatzea eta, beharrezkoa bada, zuzenketa-neurriak hartzea.

- 9.4. 2016-2019 aldirian zerga-iruzurraren kontra borrokatzeko plan bat prestatzea, onartzea eta ezartzea.
- 9.5. Administrazioarekiko harremanetan, paradisu fiskaletan aritzen diren enpresak zigortzearen legezko bideragarritasuna aztertzea.
- 9.6. Herritarrak zerga-gaietan duten arduraren hezteko eta kontzientziatzeko neurriak hartzea.

### **Politika ekonomikoak**

1. Nafarroaren ikuspegi estrategiko partekatu bat finkatzeko lan egitea, giza garapen jasagarriaren funtsetan oinarrituz: bideragarritasun ekonomikoa, kohesio soziala eta lurraldearen kohesioa, eta ingurumenaren babes orekatua. Erreferentziazko helburua eskubidedun enplegua sortzea eta finkatzea izanen da; hau da, kalitateko enplegua sortzea eta finkatzea ordainsarien, egonkortasunaren, segurtasunaren, lanean garatzeko aukeren eta gainerako lan-baldintzen ikuspegitik. Sektore estrategikoak, berriz, honako hauek izanen dira: industria aurreratua, energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa, osasuna eta harekin lotutako zerbitzuak, lehenengo sektorea eta nekazaritzako elikagaien sektorea, turismo integrala, zerbitzu aurreratuak eta teknologia berriak; industria bat puntakoa teknologiari dagokionez, ingurumena errespetatzen duena eta langileek kudeaketan parte hartzea bultzatzen duena, eta, industria endogenoa dela-eta, berriz, lurraldean hedatutako industria bat, eskualde bakoitzeko errealitatetik hurbil dagoena.
2. Indarrean dagoen lan-erreformaren kontrako jarrera adieraztea eta txosten juridiko bat egitea, jakiteko zer aukera dituen Nafarroako Gobernuak erreformak lanean eta prekarizazioan dituen ondorioak konpentsatzeko, hein batean bakarrik bada ere.

### **Epe ertaineko eta epe luzeko neurriak**

1. Inbertsioa babesteko lerroak eta epe luzeko finantzaketa eta zirkulatuailu-finantzaketa eskuratzeko aukerak lehengoratzea, dagozkion egokitzapenak eginda.
2. Kultura berri bat sustatzea enpresetan; hain zuzen ere, ezaugarritzat gardentasuna, zuzendarien eta langileen arteko konfiantza, kalitateko enpleguaren sorrera eta finkapena eta sortzen diren soberakinen inguruko errenta-itunak dituen kultura.
3. I+G+B sustatzeko konpromiso estrategikoa hartzea, baita aurrekontuen bidezkoa ere, eta, oinarritzko ikerlanean aritzeko esparru bat errespetatuta ere, enpresen lehiakortasunean eta kalitateko enpleguaren sorreran zuzeneko eragina duten jarduketak areagotu beharra azpimarratzea. Sistema aztertzea, konpromisoa saihesteko inolako biderik ez izateko, eta berrikuntza enpresa

txiki eta ertainetara eramateko lan egitea (besteak beste, enpresa txiki eta ertainak elkarlanean aritzeko bideak sustatzea).

4. Lanbide Heziketarekin konpromiso estrategikoa hartzea, baita aurrekontuen bidezkoa ere, berebiziko garrantzia izanen baitu gure etorkizunean, dela nafar anitzi enplegu egonkor eta kalitatekoa lortzen lagunduta, dela enpresak lehen mailan egoteko gaituta; zer titulu eman aztertzeke diagnostikoa egitea, ehun ekonomikoaren beharrak kontuan izanik; eta, diagnostikoaren arabera, hartu beharreko neurriak planifikatzea, beharrezko baliabideak jartzea eta eskaintza handitzea.
5. Enpresa-ehunarekiko harremanak
  - 5.1. Erabakiguneak Nafarroan bertan uztearen alde egiten duten Nafarroako enpresak babestea, ausarki babestu ere, enpresak handiak izan edo txiki edo ertainak izan.
  - 5.2. Ekonomia sozial eta solidarioaren esparruko enpresak eta gainerako ekimen ekintzaileak babestea, ausarki babestu ere.
  - 5.3. Elkarrentzat onuragarriak diren harremanak izatea Nafarroan kokatutako multinazionalekin.
  - 5.4. Jarrera proaktiboa sustatzea inbertsio berriak erakartzearen inguruan, enplegu egonkor eta kalitatekoa sortzeko Nafarroan.
6. Nafarroako enpresak nazioartera ateratzeko konpromiso estrategikoa hartzea, baita aurrekontuen bidezkoa ere, eta berez halakorik egiteko tamaina nahikoa ez duten enpresak elkarlanean ari daitezen laguntzea.
7. Nafarroa lehen mailan kokatzea Nafarroak, EAEk eta Akitaniak osatutako euroeskualdeak eta beste batzuek sustatzen duten Europa polizentrikoan.
8. Aurreko ataletan aipatutakoaren testuinguruan, inguruko lurraldeekiko lankidetzak-ekimenak aztertzea; betiere, onuragarriak izan badaitezke elkarrentzat.
9. Kontrol-irizpideak azpimarratuz, tokiko garapen-egiturak sendotzea, hala nola Cederna Garalur, Eder partzuergoa, Teder eta Nafarroa Erdialdeko Garapen Partzuergoa; eta haien arteko eta haien eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzak sustatzea, landa-ingurunearen garapen jasagarria sustatzeko, funtsezko hiru oinarri izanik:
  - 9.1. Autonomoen eta mikroenpresa txiki eta ertainen alde egitea.
  - 8.1. Tokiko baliabideak eta produktuen merkaturatzea indartzea.
  - 8.2. Ekintzaitza babesteko azpiegiturak babestea.

## Epe laburreko neurriak

1. Egungo enpresak
  - 1.1. Enpresa txiki eta ertainei babes estrategikoa eta negozioari berari buruzko ezaupideak emateko neurriak sustatzea eta hausnarketa estrategikoen esparruan nazioartera ateratzeko aukera kontuan har dezaten bultzatzea, baztertzeko bada ere.
  - 1.2. Zailtasunak dituzten enpresen egoeraz ohartarazteko sistema bat ezartzea, Gobernuak garaiz izan dezan egoeraren berri eta neurriak hartu ahal izan ditzan.
2. Kontratazioari dagokionez, Europak gazteen enplegurako ematen dituen funtsak Nafarroak zuzenean kudeatzeko negoziatzea.
3. Ekonomia soziala
  - 3.1. Ekonomia sozial eta solidarioa babesteko plan integral bat prestatzea, onartzea eta ezartzea.
  - 3.2. Industria Departamentuaren barruan ekonomia sozial eta solidarioaz arduratuko den antolamendu-unitate bat sortzea.
  - 3.3. Krisialdian dauden enpresak eta ondorengotza-arazoak dituztenak birmoldatzeko eta ekonomia sozialaren barruan sartzeko programekin konprometitzea aurrekontuen bidez.
  - 3.4. Ekonomia sozialaren esparruko enpresak sortzea, mendekotasun-egoeran daudenei legezko zerbitzuak ematea bultzatzeko beharrezko neurriak bizkortzeko.
4. Inbertsioa-finantzaketa
  - 4.1. Europako Inbertsio Bankuaren lerroaren funtzionamendua aztertzea eta, beharrezkoa bada, zuzenketa-neurriak hartzea.
  - 4.2. Enpresa txiki eta ertainen zirkulatzailera bermatzeko lerroa 150 milioi eurora igotzea.
  - 4.3. Nafarroako enpresa handi eta ertainak bisitatzeko programa trinko bat ezartzea, gaur egun krisialdia dela-eta alde batera utzitako inbertsio-aukerak detektatzeko (produktu berriak, merkatu berriak, produktu eta merkatu berriak) eta haiek ebaluatzeko eta egiteko aukerak aztertzeko; betiere, enprekin adostuta.
  - 4.4. Unibertsitateetan eta zentro teknologikoetan ez ezik, *spin off* enpresak sortzea bultzatzeko eta sortzen diren enpresak babesteko programa bat ezartzea Goi Mailako Lanbide Heziketako ikastetxeetan.



- 4.5. Proiektu berrietarako mikrokreditu-lerro bat sortzea.
  - 4.6. Enpresei diru-laguntzak emateko sistemak hobetzea, kalitateko enplegua sortzen eta finkatzen lagundu dezaten, helburu eta adierazle argiak izan ditzaten eta lurralde barneko oreka lortzen lagundu dezaten.
  - 4.7. Enpresek eraginkortasun energetikoaren alorreko neurriak hartzea bultzatzeko programa berezi bat sustatzea.
  - 4.8. Enpresak ez lekualdatzeko neurri proaktiboak hartzea.
  - 4.9. Ikertzaile gazteak atzerrian trebatzeko programa bat sustatzea, itzultzean denboraldi batez aurrez hitzartutako zentro edo enpresetan lanean aritzeko konpromisoa harrarazita
5. Enpresak nazioartera ateratzea eta elkarlanean aritzea
- 5.1. Titulu jakin bat duten gazteak (enpresa-administrazio eta -zuzendaritzako titulua, marketin-titulua, zuzendaritza komertzialeko titulua...) atzerrian trebatzeko programa bat sustatzea, itzultzean denboraldi batez erabakigunea Nafarroan duten enpresetan lanean aritzeko konpromisoa harrarazita.
  - 5.2. Lankidetzak sustatzeko eta babesteko programa bat taxutzea eta, haren barruan, ekimen publiko eta pribatuko mugaz gaindiko proiektuetan parte hartzeko pizgarriak ematea.
  - 5.3. Goraka ari diren herrialdeei buruz ikasteko eta haietan egoteko berariazko neurriak planifikatzea eta hartzea.
6. Apustu sektorialak eta azpiegiturak
- 6.1. Nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien sektoreei eta inbertsioak egiteko eta Nafarroan dauden azpiegiturak optimizatzeko aukerei buruzko azterlan bat egitea eta, haren barruan, aztertzea ea egokia den nekazaritza- eta industria-kooperatiba mistoak sortzea ekoizleen errentak hobetzeko.
  - 6.2. Nekazaritzako elikagaiak ekoizteko eta merkaturatzeko arauzko eskakizunak aztertzea, errazagoa izan dadin ekoizleek zuzenean sal ditzaten.
  - 6.3. Azpiegiturak zaharberritzeko eta zaintzeko hainbat urtetarako programa bat prestatzea, eraginkortasun energetikoa kontuan izanik.
  - 6.4. Ahal bezain laster, biomasa garatzeko aukerak eta biomasaren garapenak lurraldeko enpleguan eta ingurumenaren iraunkortasunean dituen ondorioak biltzeko txosten bat egitea.

- 6.5. Energia-autokontsumoa eta energia kontsumo-puntuetatik hurbil ekoizten duten kooperatibak sustatzea.
- 6.6. Etxebizitzetako eraginkortasun energetikoa hobetzeko zaharberritze-lanak sustatzea.
- 6.7. Ahal bezain laster, Nafarroako telekomunikazio-azpiegituren lehiakortasunari buruzko txosten bat egitea; besteak beste, banda zabala lurralde osoan erabiltzerik dagoen aztertzeke.
- 6.8. Ahal bezain laster, Iruñeko aireportua optimizatzeko aukera zehatzei buruzko azterlan bat egitea.
- 6.9. SODENA Nafarroako Garapen Elkartearen hasierako zentzuari eustea (hau da, SODENAK arrisku-kapitaleko enpresa publikoa izaten jarraitzea); erabakitzeko irizpide, protokolo eta prozedurak aztertzea; eta, beharrezkoa bada, zuzenketa-neurriak hartzea.
- 6.10. Legealdiaren lehenengo erdialdean ekoizpena gizartearekin arduratsua dela adierazteko etiketa bat sortzea, kontratazio publikoan eta diru-laguntzak emateko politikan ondorioak dituen, guztien onerako konpromisoak adierazteko.

### **Banka publikoa**

1. Nafarroan berriro ere finantza-erakunde publiko bat izateko aukerei buruzko txosten bat egitea legealdiko lehenengo urtean.
2. Nafarroako Aurrezki Kutxa Fundazioko Patronatuaren egoera aztertzea eta, beharrezkoa bada, ondarea behar bezala kudeatzen dela ziurtatzeko aldaketak hitzartzea.
3. Finantza-erakundeetako bezeroei erantzuteko bulego bat sortzea. Antolamendu-unitate berezitu bat izanen da bulegoa, herritarrak finantza-erakundeekiko harremanetan aholkatuko eta lagunduko dituen.

### **Lan-harremanak**

1. Sindikatueta ordezkariek dituzten erakunde guztietako lege eta araudiak aldatzea, sindikatu nagusia izateko eskakizuna baliogabetzeko eta irizpide inklusiboagoak ezartzeko.
2. Ugazabekin eta sindikatuekin hitz egitea, haien finantzaketa-ereduari eta erakunde-organoei buruz duten iritzia jakiteko, eta beharrezko aldaketak egitea legedian, printzipio hauetan oinarrituz:

- 2.1. Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua finantzatzeko kontu-saila deuseztatzea (900.000 euro).
  - 2.2. Ordezkaritzaren araberako finantzaketa handitzea.
  - 2.3. Nafarroako Enplegu Zerbitzuko gobernu-organo gorenaren estatutuak aldatzea, erabakiak ez daitezen aho batez har, orain arte bezala, eta, aitzitik, adostasunik ez bada, gobernu-organoak erabakitzeko eskumena izan dezan.
  - 2.4. Hausnartzea ea komeni den aurreko ataletan aipatutako aldaketak egin eta Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua mantentzea eta, desegitea komeni bada, beste aukera batzuk bilatzea; eta Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua sustatzea.
3. Enplegu-politika aktiboen esparruan, lan berezi eta babestuaren alde egiteko konpromisoari eustea; enplegu-zentro berezietan, gizarteratze-zentroetan, desgaitasunen bat dutenentzako zentroetan... esparru publikoa eta pribatua elkarlanean aritzeko ereduarekiko konpromisoari eustea; eta zentro horietan jarduera bakoitzeko hitzarmena bete dadin zaintzea, beharrezko baliabideak jarrita.
  4. Lanbide Heziketako institutuaren sarea sendotzea, lanerako prestatzeko eta etengabe prestatzeko baliabide bat den aldetik.
  5. Laneko arriskuei aurrea hartzeko legediaren betearazpena nola hobetu aztertzea eta, horretarako, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuaren iritzia entzutea. Alde horretatik, Estatuarekiko harremanen esparruan, lan-arloko ikuskapen-lanak egiteko baliabideak handitzeko bideak taxutuko dira.
  6. Nafarroako Enplegu Zerbitzua urtean 10.000 langaberekin harremanetan jartzea banan-banan –orain arte, 5.000rekin jartzen zen harremanetan–.
  7. Lana banatzea bultzatzeko bideak aztertzea (barne-plangintza hobetzea, lanaldia doitzea edo murriztea, ordu estrak deuseztatzea, aurretiko erretiroa hartzea eta errelebo-kontratuak egitea...).
  8. Azterlan bat egitea administrazioan lana banatzeko aukerei buruz, baita haiek gauzatzeko aukerei buruz, eta 39/2014 Foru Dekretua aldatzea, Funtzio Publikoaren Mahaiko sindikatuekin bat.
  9. Testuinguru horretan, biltzar bat antolatzea Nafarroan eta lanaren banaketan adituak ekartzea, arrakasta izan duten esperientziak ezagutarazteko eta arauzko esparru egoki bat sortzeari buruz hausnartzeko, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Laneko Sailarekin, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta interesa duten beste eragile batzuekin elkarlanean.
  10. Eskubide eta askatasun sindikalen behatoki bat sor dadin bultzatzea.

11. Enplegatu publikoen kontingentzia profesionalen tratamendua publiko bihurtzearen ondorioei buruzko azterlan bat egitea eta, horretarako, dagozkion eragile guztiak entzutea (tartean, Nafarroako Lan Osasunaren Institutua eta mutualitateak).
12. Nafarroako Kontuen Ganberak Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruz egindako txostenetan sakontzea; bereziki, Ganberak berak hobetu beharrekotzat hartu zituen gaietan.

### **Merkataritza**

1. Tokiko saltoki tradizionalak teknologia berriak erabil ditzaten bultzatzea, etekina atera dezaten merkataritza elektronikoak ematen dituen aukeretatik.
2. Toki-entitateekin eta merkatarari-elkarteeekin elkarlanean, hiriguneetako merkataritza biziberritzeko eta garatzeko planak abia daitezen bultzatzea eta hiriguneetan familiek aisialdia emateko eremuak sor daitezen bultzatzea, hiriguneetako merkataritza-guneek herritarrak erakartzea lortzeko.
3. Berariaz aztertu beharreko proiektu bereziak alde batera utzita, saltoki handiak irekitzearen kontrako jarrera hartzea.
4. Igande eta jaiegunetan saltoki bat ere ez irekitzeko jarrera politikoa hartzea.
5. Kontsumitzaileei informazioa emateko udal- eta eskualde-bulegoen sarea hedada dadin bultzatzea eta lanerako behar adina baliabide esleitzea eta finantzaketa publiko egokia ematea bulegoei.
6. Kontsumo alternatiboa sustatzeko plan bat prestatzea eta onartzea urtebetean (bidezko merkataritza, birziklatutako produktuak, ondasun eta zerbitzu partekatuak, tokian-tokian ekoiztutako produktuak...).
7. Banaketa-zirkuitu laburrak eta ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko zuzeneko salmenta-zirkuituak ezartzeko bide alternatiboei buruzko azterlan bat egitea urtebetean, sektoreko eragileekin elkarlanean.

### **Turismoa**

1. Turismo-mahai sektorial bat sortzea, lurraldearen egoerara egokitutako plan estrategiko berri bat prestatzen parte har dezaten sektoreko eragileek.
2. Erakunde publiko pribatuen eta turismo-elkarteen lana sustatzea.
3. Naturaguneetako turismoa sustatzea, haien ezaugarri eta beharrak errespetatuta.

4. Turismo-eskaintzaren kalitatea hobetzeko araudi, jarduketa eta sustapenak egitea, ardatz hauetan oinarrituz: landa-inguruneko turismoa + gastronomia + baliabide naturalak + jasangarritasuna + kultura + ondare historikoa + aisialdia.
5. Bidexken, ibilbide historikoen eta ibilbide tradizionalen eskaintza sustatzea.
6. Inguruko erkidegoekin elkarlanean aritzea, Nafarroa turistaren helburu izan daitekeen irudia sendotzeko.

### **Autogobernu fiskala**

1. Zalantzarik ez gelditzeko moduan, argi eta garbi uztea aurrez Estatuarekin hitzartu ez dituen gaitan zuzeneko zergak arautzeko eskumena duela Nafarroak eta, aldi berean, Estatuako zuzeneko zerga bat ere ezin dela aplikatu Nafarroan baldin eta aurrez Nafarroarekin hitzartzen ez bada. Alde horretatik, zorrozki zainduko da Hitzarmen Ekonomikoaren Legean eta Autonomia-erkidegoen finantzaketari buruzko Legean berriki egindako bi aldaketen funtzionamendua, eta berrikusketarik planteatzea komeni den aztertuko da.
2. Nafarroak zeharkako zergak arautzeko eskumen berriak hartzeari buruz eztabaidatzea Estatuarekin; bereziki, ekonomia biziberritzen eta enplegua sortzen eta finkatzen lagundu dezaketen gaiak dagokienez.
3. Estuarekiko harremanen esparruan Hitzarmen Ekonomikotik ondorioztatzen diren gaiak aztertzeko eta prestatzeko eta haien jarraipena egiteko beharrezko giza baliabideak eta baliabide teknikoak esleitzea, kontuan izanik gai hori gero eta konplexu eta garrantzitsuagoa dela.
4. EAEn eta foru-ogasunetan zergen eta hitzarmen ekonomikoaren gaineko ardura dutenekin komunikatzeko eta harremanetan egoteko esparru egonkor bat sortzea, Estuarekiko harremanaren inguruko informazioaren, esperientzien eta zailtasunen berri emateko elkarri.
5. ECOFINeko lantaldeetan parte hartze aldera Estatuarekin egindako ituna betetzea eta, gainera, Europako estatu eta eskualdeetako solaskideekiko harremanak estutzeko aprobetxatzea.
6. Dagozkion foroetan, Elizak kulturako erabiltzen ez dituen jabetzen gaineko hiri-kontribuzioaren salbuespenaren kontrako jarrera adieraztea eta toki-entitateei haien ondare publikoaren jatorriari eta eskubideei buruzko informazio juridiko eta historikoa ematea, baita Eliza katolikoak bidegabeki immatrikulatutako ondasunak berreskuratzeko babes aktiboa ere.
7. Defizit- eta zorpetze-helburuak bete egiten diren kalkulatzeko helburuetarako, aberastasuna eta enplegua sortzen duten inbertsio estrategikoak kontabilizatzeko irizpideak ezberdinak izateko negoziatzea Estatuarekin.

8. Aurrekontu-politika orekatu eta iraunkor batekin konprometitu ere, Konstituzioko 135. artikularen aldaketaren eta Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren kontrako jarrera adieraztea eta haiek indargabetzeko eskatzea.
9. Defizit- eta zorpetze-helburuak betetzeko eskakizunaz gain aurrekontuen egonkortasunari buruzko legeak eskakizuntzat ezarritako gastu-arauak nahitaezkoa izateari uztearen alde egitea.
10. Defizit-helburuak betetzen dituzten toki-entitateek soberakinak beste helburu batzuetarako erabili ahal izateko printzipioaren alde egitea.

### **Aurrekontu-politika**

Aurrekontu-politika jendearen zerbitzura jartzea, krisialditik ateratzeko, enplegua sortzeko eta kalitateko zerbitzu publikoak izatea eta zerbitzuek finantzaketa nahikoa izatea ziurtatzeko. Para ello:

1. PFEZaren aitorpena aprobetxatuz herritarrek aurrekontuen lehentasunak finkatzen parte hartzeko aukerak aztertzea urtebetean.
2. Aurrekontuak prestatzeko proposamenak egitean Ekonomia eta Gizarte Kontseilua protagonista izan dadin bultzatzea.
3. Diru-sarreraren aurreikuspenak egiteko metodologia xeheki aztertzea (tartean, aurreko gobernuak egindako aldaketak), orain arteko aurreikuspenak ez baitira bete izan, eta gizartearekin erabateko gardentasunaz eta pedagogiaz jokatzeko alor honetan.
4. Estatuarekiko doikuntzen aurreikuspenak egiteko metodologia xeheki aztertzea, gastu-mugan eragina baitu, eta gizartearekin erabateko gardentasunaz eta pedagogiaz jokatzeko alor honetan.
5. Parlamentuko taldeek aurrekontuaren gauzatzeari buruzko zuzeneko eta denbora errealeko informazioa izatea ziurtatzeko sistema bat ezartzea, legezko berme guztiak dituen, eta sortzen diren zalantzak argitzeko bide argi eta egoki bat sortzea.
6. Gastuen aurrekontua egiteko politikan zero oinarriko irizpideak eta arrazionaltasuna eta eraginkortasuna lortzeko irizpideak sartzea.
7. Aurrekontua betetzen den neurtzeko kontrol-neurriak areagotzea eta, tartean, eraginkortasun-helburu eta -adierazleak finkatzea.
8. Administrazioan pixkanaka kostuen kontabilitatea ezar dadin bultzatzea.

## Gai bereziak

1. Iraganean Reino Arenarekin, Los Arcosko zirkuituarekin, SendaVivarekin, Osasunarekin eta Donejakue bideko autobiarekin gertatutakoaren analisia
  - 1.1. Kontuen Ganberak egindako txostenak aztertzea –Osasunari buruzko txostena amaitzeko dago–.
  - 1.2. Inork erantzukizunik duen zehazteko analisi juridikoan sakontzea.
  - 1.3. Herritarrekin erabateko pedagogiaz jokatzeko azterlanaren ondorioak direla eta.
2. 1990etik aurrerako zorraren jatorriari eta bilakaerari buruzko txosten bat egitea (printzipalak, interes-tasak, ordaindutako interesak), aurrekontuen bilakaera kontuan izanik.
3. Iberdrolako akzioekiko eragiketaren errentagarritasun finantzarioa zehazteko txosten bat egitea.
4. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa
  - 4.1. Enpleguak, hornigaiak, laguntza-zerbitzuak eta lanak kontratatzeko erabakiek kontratazio publikoaren printzipioak betetzeko protokolo zorrotzak daudela ziurtatzea, lehendik egindakoa aztertzea eta, beharrezkoa bada, zuzenketa-neurriak hartzea.
  - 4.2. Kultura berri bat sustatzea, ausarki sustatu ere; hain zuzen ere, ezaugarritzat gardentasuna, zuzendarien eta langileen arteko konfiantza, kalitateko enpleguaren sorrera eta finkapena eta sortzen diren soberakinen inguruko errenta-itunak dituen kultura.
  - 4.3. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari buruzko hausnarketa estrategikoa egitea legealdiko lehenengo urtean, beharrezko orientabide estrategikoak ezartzea eta, hausnarketa horren esparruan, enpresa-sektore publikoaren eginkizunari buruz gogoeta egitea.
5. C. A. Osasuna
  - 5.1. Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duen Foru Legeari buruzko gaietan gizaratearekin erabateko gardentasunaz eta pedagogiaz joka dadin bultzatzea.
  - 5.2. Beste edozein zergadunek bezala, Osasunak etorkizunean bere zerga-betebeharrak bete ditzan zaintzea.

6. Nafarroak Bruselan zuen bulegoa berrirekitzea, baliabide soilak erabiliz, honako hauek helburu:
  - 6.1. Nafarroako Foru Komunitatea Europar Batasuneko erakundeen aurrean ordezkatzeta.
  - 6.2. Eragile ekonomiko eta sozialak Europako erakundeekiko harremanetan laguntzea.
7. Ameriketako Estatu Batuek eta Europar Batasunak merkataritza-akordio berri bat egiteko negoziazioei dagokienez (TTIP), dagozkion esparruetan erabateko gardentasuna eskatzea eta orain arte ezagutarazitako informazioak piztutako kezka berri ematea.
8. SODENaren jardun-eremuaren esparruan, SODENak industria biziberritzeko eta enplegua sortzeko funts bat kudeatzeko aukera aztertzea.
9. Moderna Fundazioari dagokionez, likidazioa proposatzea eta eragile ekonomiko eta sozial nagusiekin hausnarketa estrategikoa egiteko plataforma berri bat sustatzea Gobernuak berak.
10. Jardunbide egokiak sustatzea aukera-berdintasunaren esparruan, Gobernuak ontzat dituenak; adibidez, lan-kontratuen ehuneko handiagoa egitea Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez. Alor honetan lan egiteko aukerak zehazteko txosten juridiko bat egingen da sei hilabeteetan.

#### **4. AUTOGOBERNUA, DEMOKRAZIA, GARDENTASUNA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA**

##### **A. AUTOGOBERNUA**

Nafarroako herritarren borondatea eta erabakimena (etorkizunerako gehien komeni zaizkien eredu eta neurri politiko, ekonomiko eta sozialak erabakitzeko ahalmena) onartu eta errespetatu, eta autogobernua sustatuko du Nafarroako Gobernuak.

##### **1. AUTOGOBERNUAREN BABESA ETA SUSTAPENA**

###### **Printzipio orokorra: autogobernuaren alde egiteko irmotasuna**

1. Instantzia guztietan, Nafarroako autogobernuaren alde egitea, Nafarroaren kontrako birzentralizazio-boladaren barruan etengabeko erasoen bidez



autogobernua murrizten ari diren alderdien kontra, barne- eta kanpo-elkartasunerako tresna bat ere baita autogobernua.

2. Nafarroako autogobernua politika zehatzak (herritarren benetako arazoak konpontzen dituztenak) diseinatzeko, garatzeko eta aplikatzeko tresnarik egokiena dela babestea eta, horrenbestez, autogobernuaren berezko erakundeak Estatuak oinarritzko legedia neurritz kanpo erabiltzetik babestea eta Estatuarekiko berme-sistema bat ezartzen ahalegintzea.
3. Zorraren bolumena, zorraren egituraketa eta baliabideak sortzeko gaitasuna kontuan izanik, Nafarroa komunitate sendotzat, konfiantza sortzen duen komunitatetzat hartzeko moduan bideratzea ekintza politikoa. Izan ere, horrela lortuko du Nafarroak benetako autogobernua izatea eta hirugarrenen esku ez egotea.

## **2. AUTOGOBERNUA BABESTEKO ETA SUSTATZEKO PROPOSAMEN ZEHATZAK**

Egungo autogobernuaren eta Estatuarekiko harremanen kudeaketa

1. Parlamentuko taldeei Hitzarmenaren negoziazioaren helburuak finkatzen eta Estatuak Nafarroari eskualdatu ez dizkion eskumenak negoziatzen parte hartzeko aukera ematea eta negoziazioetan herritarrekin gardentasunez jokatzeko konpromisoa hartzea.
2. Lehentasunak
  - 2.1. Estatuari bosturteko berriko (2015-1019 aldiko) oinarri-urtean egin beharreko ekarpena negoziatzea eta aurrekoak ixtea (2013-2014).
  - 2.2. Nafarroak bere gain hartzea ikerketa, garapen eta berrikuntzaren, zirkulazioaren eta espetxeen gaineko eskumenak.
  - 2.3. Defizit- eta zorpetze-helburuak bete egiten diren kalkulatzeko helburuetarako, aberastasuna eta enplegua sortzen duten inbertsio estrategikoak kontabilizatzeko irizpideak aldatzeko aukera negoziatzea.
  - 2.4. Hitzarmen Ekonomikoaren Legean eta Autonomia-erkidegoen finantzaketari buruzko Legean berriki egindako bi aldaketen ondorioak ebaluatzea eta berrikusketarik planteatzea komeni den aztertzea.
  - 2.5. Defizit- eta zorpetze-helburuak betetzeko eskakizunaz gain aurrekontuen egonkortasunari buruzko legeak eskakizuntzat ezarritako gastu-araua nahitaezkoa izateari buruz negoziatzea Estatuarekin.
  - 2.6. Defizit-helburuak betetzen dituzten toki-entitateek soberakinak beste helburu batzuetarako erabili ahal izan ditzaten negoziatzea Estatuarekin.

- 2.7. Konstituzioko 150.2. artikulua arautzen dituen eskumen-eskualdatze eta -eskuordetzeak Nafarroaren eskumen-esparruaren alde erabiltzea.
- 2.8. Ahots propioa entzunaraztea Europan eta nazioarteko harremanetan eta eskumen eskusibo propioen eta autogobernuaren alde egitea Europako erakundeetan.
- 2.9. Auzotasun- eta lankidetzaharreman onak izatea autonomia-erkidego mugakideekin eta EA Erekiko harremanak normalizatzea eta sustatzea.
- 2.10. Nafarroa Behereko udalekiko harremanetan sakontzea, Nafarroa Garaiko eta Nafarroa Behereko herritarren arteko lotura historiko, sozial eta kultural bereziak lehengoratzeko eta estutzeko.
- 2.11. Nafarroa, Akitania eta Euskadi elkarlanean aritzeko protokoloari berriro heltzea, Europa mailako aukerak hobetzeko, ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-sistemaren aldaketek eta estatuz haraindiko harremanen estutzeak inguruko eskualdeekin batera lan egitera (baterako politikak aplikatzera) behartzen baitute.
- 2.12. Europako eskualdeek elkarrekin osatzeko prozesuaren barruan Nafarroarentzat interesgarriak diren beste instantzia batzuk areago gara daitezkeen bultzatzea; adibidez, Europa Atlantikoaren Hegoaldeko Eskualdeen Konferentzia eta Pirinioetako Lan Komunitatea –1983an sortu zen Komunitatea–.
- 2.13. Frantziako eta Espainiako lurralde-entitateen arteko mugaz haraindiko lankidetzak sustatzea eta sozietate zibilak lankidetzak horrek ematen dituen aukerak aprobetxatzen parte har dezan ahalegintzea.

### **3. AUTOGOBERNUA, ETORKIZUNEN PROIEKTU. NAFARROAKO FORU-ERAENTZA BERREZARRI ETA HOBETZEARI BURUZKO LEGE ORGANIKOAREN ERREFORMA**

1. Parte hartzeko bide ematen duen prozesu bat abiaraztea eta Parlamentuan beste prozesu bat abiaraztea, Nafarroako foru-eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoa erreformatzeko eta, horrela, Nafarroaren estatus politikoa zehazteko, Nafarroak bere gain eskumen berriak hartzeko eta eskubide sozialak aitortzeko bidean aurrera egiteko –eskubide sozialei legedian ahalik eta maila handiena emateko eta haiek erabili ahal izateko–; eta herritarrei erreforma bozkaraztea.

### **B. DEMOKRAZIA, GARDENTASUNA ETA PARTE-HARTZEA**

**Printzipio orokorra: DEMOKRAZIA, GARDENTASUNA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA**

1. "Nafarroan bizi diren pertsona guztien eskubide zibil eta politiko guztiak aitortzea, haien legezko estatutua dena delakoa ere".
2. Balio hauetan oinarritutako proposamen bat sustatzea: norbanakoaren arduraren zintzotasuna, fidagarritasuna, argitasuna, arrazoiketa, diagnostikoaren zorrotasuna eta metodoa, helburuen finkapena eta jarduketaren planifikazioa.
3. Ezinbestean, kode etiko bat onartzea, gobernu onaren kodearen esparruan indarrean dauden legeak eta bateraezintasun-legeak gainditu eta jokaera desagokiak zehazteko eta zigor-prozedura bat ezartzeko –Gobernuaren mende ez dagoen organo batek abiaraziko, bideratuko eta ebatziko du zigor-prozedura–.

Besteak beste, honako hauek hartuko dira jokaera desagokitzat:

- 3.1. Kargudun eta enplegatu publikoek kontratuen edo diru-laguntzen onuradun diren entitate, enpresa edo partikularren opari pertsonalak onartzea.
  - 3.2. Opari instituzional oro dagokion erakundearen ondarean ez sartzea.
  - 3.3. Kargudun eta enplegatuei egiten zaizkien opari instituzionalen balio ekonomikoa lanbide arteko gutxieneko soldataren arabera zenbateko jakin batetik gorakoa izatea.
4. Nafarroako Aurrezki Kutxa ikertzeko batzorde berri bat eratzea.
  5. Kontuen Ganbera Club Atlético Osasunaren zerga-zorren kudeaketari buruz egiten ari den txostena xeheki aztertzea, klubak kontuak ikuskatzen dituela ziurtatzea –legez behartuta dago– eta gizartearekin erabateko gardentasunaz jokatzeko Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duen abenduaren 2ko Foru Legeari buruzko gaitan.
  6. Ikuskaritza Zerbitzuak etorkizunean planteatzen diren proiektu estrategikoak (betiere, udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialak) aurrez kontrolatu behar izateko beharrezko aldaketak sustatzea –Kontuen Ganberaren onespenez izan beharko du kontrol-lan horrek–.
  7. Gardentasunari eta gobernu irekiari buruzko Foru Legearen edukiak eta ezarpen-maila aztertzea eta legedian gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko berariazko lege bana izateko beharrezko aldaketak egitea.
  8. Gobernua kontrolatzeko osoko bilkurak egitearen alde egitea.

9. Lehendakariaren eta sailburuen agintaldien kopurua mugatzea eta gehienez ere bi agintaldiko muga jartzea.
10. Parlamentuko taldeek aldian-aldian Gobernuko departamentu eta programa bakoitzeko aurrekontuaren gauzateari buruz behar adinako informazioa izatea ziurtatzeko mekanismoak ezartzea eta sortzen diren zalantzak argitzeko bide argi eta egoki bat sortzea; eta, horretarako, Nafarroako Parlamentuan aurrekontu-bulego bat sortzea
11. Lege-aurreproiektu arruntak Parlamentuko talde guztiei helaraztea, ahalik eta adostasun handiena izan dadin dagokion lege-proiektua prestatu aurretik.
12. Garrantzi politiko eta soziala kontuan izanik Nafarroa mailako adostasun handia behar duten legeak ahalik eta talde parlamentario gehienek bidera ditzaten bultzatzea.
13. Nafarroako Kontseiluari dagokionez, osaera eta kideen izendapena aldatzea, profesionaltasun- eta independentzia-irizpideei jarraituz.
14. Kontseilu sektorialeiei dagokienez, osaera aztertzea, sektoreek areago parte har dezaten eta ordezkariak handiago izan dezaten.
15. Kode etikoaren prestakuntzaren esparruan, epaimahai eta kontratazio-mahaiak eta diru-laguntzak esleitzeko eta emateko mahaiak osatzeko bermeak arautzea.
16. Kontratu publikoei buruzko legedia aldatzea, Nafarroako Kontratazioaren Atarian entitate publikoek burututako kontratu guztiak azaldu daitezten, haien zenbatekoa dena delakoa ere, eta, horrela, herritar guztiek izan dezaten kontratuak esleitzeko prozedurari eta esleipendunei buruzko datuak eskuratzeko aukera.
17. Erakundeek administrazio publikoaren mendeko sozietate publiko eta fundazioetako gobernu-organoetan duten ordezkariak plurala izatea.
18. Departamentu guztietako oroitidazkiak Gardentasunaren Atarian argitaratzea epe jakin batean.
19. Aztertzea ea ba ote den laguntza-kontratuen eta lan espezifikoak egiteko kontratuen bidez kontratatutako enpresa eta profesionalek funtzio publiko bat betetzen duten pertsonak sistematikoki ordezkatzeko aukera mugatzerik.
20. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulego bat sortzea. Lege-foru batek arautuko ditu haren osaera, helburua, antolamendua eta funtzionamendua, eta ardatz hauek izanen ditu haren jardunak:
  - 20.1. Kudeaketa publikoaren eta, bereziki, azpiegituren esparruko jarduketa nagusiak ikuskatzea eta aztertzea; zehazki, azpiegiturak eraikitze eta

haiek ustiatzeko eta mantentzeko jarduketak eta, betiere, programa-akordio honek aipatzen dituenak.

- 20.2. Kode etikoaren proposamena prestatzea eta kode etikoaren inguruan abiarazitako espedienteak bideratzea eta ebaztea.
- 20.3. Ustelkeriari aurrea hartzea.
21. Parte-hartzeari buruzko foru-legeari dagokionez, demokrazian parte hartzeko ziklo osoa kontuan hartzea eta hura onartzea. Besteak beste, honako hauek arautuko ditu legeak: herritarrei kontsulta egiteko tresnak, parte-hartzearen bidez prestatutako aurrekontuak eta gaitzespen politikorako bideak; betiere, Nafarroaren eskumenen esparruan.
22. Gardentasun-legeari dagokionez, Gobernuak hura sustatzea, informazioaren eta datu publikoen jabeak herritarrak diren printzipioan eta administrazioak haiek emateko betebeharrean oinarrituz –alde batera utzita Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko Legeak babesten dituenak eta administrazio-prozeduraren barruko fase erreserbatuetan daudenak-. Horretarako, azterketa bat egingen da (Gardentasunaren Ataria, Atariak datu publikoak eskuratzeko eskaintzen dituen bideak, horretarako prozedurak eta prozedura bakoitzaren barruko faseak, administrazioaren produktu eta zerbitzuei eta haiek eskuratzeko bideei buruzko informazioa eta jardun publikoari, hura eratzen duten organoei eta organo horiek kudeatzen dituzten pertsoneri buruzko beste edozein informazio aztertuko dira), eta horiek guztiak argitaratzeko legezko epe bat ezarriko da.
23. Erantzukizun-osagarria deuseztatzea eta kargu publikoak dituztenen soldatak aztertzea eta arrazionalizatzea (bai Gobernuako kargudunenak, bai sozietate eta fundazio publikoetako eta Gobernuaren mendeko gainerako erakundeetako kargudunenak).
24. Gobernu irekiari dagokionez, hura lortzeko erakunde bat sustatzea.
25. Toki-entitateak Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jartzeko bideak zehazteko eta zabaltzeko konpromisoa hartzea.

## **5. TOKI-ADMINISTRAZIOA, AZPIEGITURAK, INGURUMENA, LANDA-GARAPENA ETA LURRALDE-ANTOLAMENDUA**

### **NAFARROAKO TOKI-ADMINISTRAZIOAREN ERREFORMA**

1. Premiazko neurriak hartzeko foru-lege bat onar dadin babestea, gairik larrienei aurre egiteko. Besteak beste, honako hauek dira premiazko gaiak:

- 1.1. Toki-entitateek datozen bi urteetan transferentzia arrunten funtseko zenbatekoak behar bezala eguneratuta (KPI + 2 eginda) kobra ditzaten ziurtatzea.
  - 1.2. Batzarkideen ordainsari eta laguntza-zerbitzuen gastuak ordaintzeko zenbatekoak kobratzeko, udalek ez bete behar izatea Sinboloei buruzko Legea –Nafarroako Kontseiluak berak ere ezbaian jarri du baldintza hori–.
  - 1.3. Epe laburrean, egungo azpiegitura-planaren barruan egiteko dauden inbertsioak –luzatu egin zen Azpiegitura Plana– eta hasteko baimena ez dutenak egiteko irtenbide progresibo bat aurkitzea.
  - 1.4. Behin-behineko inbertsio-funts bat sortzea inbertsio-plan berri bat abian jarri bitartean. Udalek nahieran erabili ahal izanen dute funts hori, eta, hari esker, premiazkoak dituzten inbertsioak egin ahal izanen dituzte –urte luzez, ez dute izan batere funtsik–. Gutxi gorabehera, bi urtez egonen da abian funtsa, eta hura zuzkitzeko zer aurrekontu erabil daitekeen aztertu, eta ahalik eta diru gehienaz zuzkituko da.
  - 1.5. Nafarroako toki-entitateek montepioak ordaintzeko sistema aldatzeko bide bat taxutzea, sistema hori bidegabea baita.
  - 1.6. Behin-behineko inbertsio-funtsa abian dagoen bitartean ematen diren diru-laguntza finalisten egoera aztertzea eta antolatzea.
2. Datozen bi urteetan, Nafarroako toki-administrazioa berregituratzeko planari heltzea, beharrezkoa baita, eta, lehenik, norabide edo helmuga finkatzeko diagnostiko edo liburu zuria prestatzea. Diagnostikoa egiteko prozesuaren barruan, parte hartzeko bide ematen duen prozesu bat taxutuko da, eta, gero, diagnostikoaren arabera, toki-entitateen eskumen-esparrua, finantzaketa-esparrua eta egitura edo mapa zehaztuko dira.
  3. Beharrezko legeak egiteko proiektuak prestatzea legealdiaren bigarren erdialdean (Nafarroako toki-administrazioari buruzko Foru Legea, Nafarroako toki-ogasunei buruzko Foru Legea, etab.).

### **Toki-administrazioen esparruko beste neurri batzuk**

1. Toki Administrazioko Departamentuaren barruan toki-entitateak hainbat gai kudeatzen laguntzeko unitate espezializatu bat sor dadin bultzatzea, erakundeen arteko beharrezko lankidetzaren testuinguruan. Besteak beste, honako hauetaz arduratuko da unitate hori: erosketez eta erosketa kolektiboez, negozioziazio elektrikoaz, inbentarioez, langileen kontratazioaz, polizia-laguntzaileez eta partaidetza- eta gardentasun-gaien ezarpenaz eta jarraipenaz.
2. Tokiko maparen lege berria prestatzea eta haren barruan, toki-entitateen eskumenak behin betiko zehaztea eta finantzaketa egonkorra dela ziurtatzea, diru-laguntza finalistak deuseztatzeko.

3. Tokiko maparen lege berriari buruzko eztabaidaren esparruan, udalez gaindiko toki-entitateei buruzko eztabaidari heltzea.
4. Erreforma-prozesuaren barruan toki-ogasunen finantzaketari buruz pizten den eztabaida orokorraren esparruan tokiko zerga-sistemari buruzko eztabaidari heltzea eta, bereziki, haztapen-txostenen eguneratzean eta tokiko zergen azterketan jartzea arreta.

## **AZPIEGITURAK**

### **1. Trena**

- 1.1. Nazioarteko estandarrekin bateragarria den eta salgai eta bidaiariak aldirietara zein distantzia luzeetara garraiatzeko beharrei erantzuteko gaitasuna duen irtenbide baten alde egiteko epe luzeko asmoa adieraztea eta Nafarroa Korridore Atlantiko Mediterraneotik kanpo ez gelditzeko lan egitea.
  - 1.2. Aldirietako sareari dagokionez, dagozkion azterlanak egin, eta Renferekin hitz egitea, geltoki bat duten herrien eta Iruñearen arteko trenen ordutegia eta maiztasuna hobetzeko aukera aztertzeke.
  - 1.3. Campanas eta Castejón arteko tarteari dagokionez –Estatuarekin hitzartuta dago egun–, egungo egoera xeheki aztertzea eta aurrera egiteko inolako erabaki administratiborik ez onartzea argi dagoen arte Estatuko Gobernuak behar adinako konpromisoa hartu duela, lehenengo atalean aipatutakoekin bat, bi administrazioak bat datozen irtenbide batekin.
  - 1.4. Salgaiak Europako bide-zabalera duten trenbideetatik ateratzearen alde egitea, ausarki egin ere, eta, berehala, Estatuarekin hitz egiten hastea; besteak beste, eredia, denborazko plangintza eta finantzaketa hitzartzeko.
2. Pirinioetako autobideari dagokionez, ezkutuko bidesariaren gainkostua ebaluatzea eta proiektuaren espedientea aztertzea, Estatuari konpentsaziorik eskatzea balegokio ere.
  3. Nafarroako Ubidearen lehenengo faseko eremu ureztagarria handitzeko ezkutuko bidesariari dagokionez, onartutako gainkostu finantzarioa txikitzeke aukerak aztertzea eta etorkizunerako jarduketa estrategikorik ez planteatzea baldin eta proiektu bakoitzak ekonomian, gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak aztertzeke txostenik ez badago; esleipen-prozesuan gardentasun falta edo irregulartasunik izan zen aztertzea eta ureztatzaile-elkarteen eskubide guztiak zenbateraino errespetatu ziren aztertzea; eta emandako esleipenen egoera aztertzea eta aztertzea zer-nolako eragina izanen luketen lortu gabeko irabaziek esleipenak bertan behera geldituko balira.

4. Gendulaingo Udalaz gaindiko Plan Sektorialari dagokionez, aho batez Gendulaingo hazkunde-ereduaren kontrako jarrera politikoa hartuta ere, Plana ez onartzeagatiko arrisku juridikoak ebaluatzeko eta orain arteko erabakiak atzera botatzeak aurrekontuetan eta beste alor batzuetan izanen lituzkeen ondorioak ebaluatzeko txosten juridikoak eskatzea.
5. Navarra Arenari dagokionez, hura amaitzeko aukerak eta itxita uztea baino merkeago ateratzen diren irtenbideak bilatzea (irekitzea, saltzea, etab.).
6. SendaViva parkeari dagokionez, indarrean dagoen negozio-plana aztertzea, eragin ekonomiko induzituari buruzko txostena eguneratzea eta, emaitzen arabera, neurriak hartzea.
7. Los Arcosko zirkuituari dagokionez, egungo kudeaketaren jarraipen zorrotza egitea eta helburua lortzen dela ziurtatzea; alegia, sortzen den gastua txikiagoa izatea zirkuitua itxita uztearena baino.
8. Bardeetako tiro-eremuari dagokionez, eremua eraisteko eskatzea Estatuari eta gardentasun-neurriak sustatzea Bardeetako Juntaren kudeaketan.
9. Castejóngo eta Lodosako portu lehorrei dagokienez, bi aukerak aztertzea, dagozkion departamentuekin, Estatuako Gobernuarekin, udalekin eta eragile ekonomikoekin batera.
10. Bide berdeei dagokienez (Plazaola eta Irati), Cedernak eta Nafarroa Erdialdeko Garapen Partzuergoak azken hiru urteetan proiektua aurkezteko eta funtsak erakartzeko egindako lana alferrikakoa ez izateko esku hartzea –kalitateko turismoarekin, landa-ingurunearen garapenarekin, ingurumenaren errespetuarekin eta lurralde arteko orekarekin lotuta dago gaia–.
11. 121-A errepideari dagokionez (Belate), Europako direktibara egokitzea; horretarako, Europak ezarritako eskakizunak xehe-xeheki aztertzea eta ibilbidearen, zirkulazioaren, istripu-tasaren eta aurrekontu-beharren diagnostikoa egitea; eta, azterketaren eta diagnostikoaren arabera, esku hartzeko plan bat finkatzea.
12. Alloko urtegiari dagokionez, Ebroko Arroko Plan Hidrologikoaren barruko lanak egiteko proiektua aztertzea, haren eraginaren peko eremuko nekazarien kontrako jarrera kontuan izanik, eta, honela badagokio, hura bertan behera uzteko eskatzea.
13. Egaibarko akuiferoen ustiapenari dagokionez, inguruko baliabide hidrologikoei buruzko azterlan bat egiteko eskatzea.
14. Soltxateko espetxeari dagokionez, txosten juridiko bat eskatzea, zehazteko ea ba ote den argudio juridikorik Estatuari ingurune natural babestuko milioi bat



metro koadro galarazteagatik konpentsazioa eskatzeko erreklamazioa oinarritzeko.

15. Esako urtegia handitzeko lanei dagokienez, lanak gelditzearen alde egitea Estatuaren aurrean eta beste aukera batzuei buruzko eztabaida pitzaraztea.
16. Aipatutako udalez gaindiko plan sektorialeiei dagokienez, udalaz gaindikotzat zer hartzen den azter dadin bultzatzea, udal-eremua gainditzeko ez duten proiektuek kontzeptua ez gaiztotzeko. Alde horretatik, 35/2002 Foru Legea aldatzea bultzatuko da, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa (zehazki, 42. artikulua), udalez gaindiko plan eta proiektuen definizioa zehazteko eta, horrela, "Nafarroako toki-entitateek hirigintza-arloan dituzten eskumenetan sartzen ez den heinean, lurraldea egituratzen" laguntzen duen tresna bat "babesteko".
17. Etxabakoitzeko udalaz gaindiko plan sektorialari dagokionez, haren bilakaera trenbide-sistemaren alorrean hitzartutako jardun-ildoan bilakaerarekin lotzea.
18. Donapeko udalaz gaindiko plan sektorialari dagokionez, Galar zendea haren kontra dagoela jakinik –hainbat errekurso jarri ditu Planaren kontra– eta kontuan izanik planak udalaz gaindikotzat hartzen denaren kontzeptua gaiztotzen duela, kaltetuak entzutea inolako pauso administratiborik eman aurretik, behin-behineko jarrera hartzeko.

## **LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA**

### **1. Lurraldea Antolatzeko Plana**

- 1.1. Lurraldearen antolamenduak udal-plangintza urbanistikoa arautzeko esparrutzat betetzen duen eginkizuna sendotzea eta udal-plan orokorren arteko koherentzia eta koordinazioa hobetzea –lurraldea okupatzeko estrategia eta ereduak eta udalen hirigintza-planek osatzen dituzte udal-plan orokorrak–. Alde horretatik, arreta berezia jarriko da gai hauetan: mugikortasuna, ura, energia, berdeguneak eta gizarte-arloko ekipamendua. Betiere, lehendik dauden dokumentuak aztertuko eta egokituko dira: horixe izanen da abiapuntua.
- 1.2. Lurraldean eragina duten proiektuak jendaurrean aurkezteko legezko epeak luzatzeko aukera aztertzea, gizarte zibilak parte hartzea bultzatzeko.

### **2. Mugikortasuna**

- 2.1. III. Errepide Plana (2009 eta 2016 artekoa) aztertzea eta eguneratzea eta lehenetsua duten jarduketak finkatzea.

- 2.2. A-15 autobidean, Iruñea eta Tuteran arteko tartearen egungo egoera aztertzea eta berriro publiko bihurtzeko aukerak aztertzea, doakoa izan dadin.
- 2.3. Hiriarteko Garraio Planaren barruko jarduketak eta benetako egoera aztertzea, parte hartzeko bide ematen duen prozesu baten bidez. Alde horretatik, Iruñerriko eta beste eremu batzuetarako garraio-txartel bateratuak sortzeko aukera aztertuko da, baita Iruñerrian metrobus-bideak sortzeko aukera ere.
- 2.4. Mugikortasun jasangarriari eta garraioaren antolamenduari buruzko lege integral bat idaztea eta onartzea, gizarte zibilari parte hartzeko aukera emanda -loteslea izanen da gizarte zibilak erabakitzen duena-, eta beharrezko ekintza-plana gauzatzeko, bere eraginkortasuna neurtzeko adierazleak dituen, aniztasun funtzionala dutenak batetik bestera mugitu ahal izatea ziurtatzeko.

## **LANDA-INGURUNEAREN GARAPENA**

1. Tokiko garapen-egiturak sendotzea eta haien arteko lankidetzari bide ematea, baita haien eta Gobernuaren arteko lankidetzari ere.
2. Barnealderantz emigratu behar ez izateko neurriak hartzea.
3. Ekonomia- eta gizarte-gaiak antolatzeko sistema bat sortzea, kooperatibismo-ereduetan oinarrituz landa-ingurunea garapen-eragile bihurtu dadin berriro ere jende gutxi bizi den eremuetan.
4. Landa-ingurunearen garapen jasangarriko egungo plana aztertzea, aipatutako parametroetan oinarrituz, Europar Batasunean horretarako zer aukera dauden jakinik.
5. Testuinguru horretan, lehenengo sektorea berritzailea izan dadin eta nekazaritzako elikagaien balio-kate osoan parte har dezan bultzatzea eta babestea.
6. Lehenengo sektoreko langileen gaikuntza babestea.
7. Lehenengo sektorearen finkapena babestea, hura indartzeko neurrien bitartez.
8. Produktu ekologikoen eta bertako arraza eta aldaeren garapena eta finkapena sustatzea.
9. Lehenengo sektorean merkaturatze-kanalak eta zirkuitu laburrak gara daitezkeen bultzatzea.
10. Baliabide naturalak energia-iturri gisa ustia daitezkeen babestea eta lurraldean energia berriztagarriak erabil daitezkeen bultzatzea.
11. Transgenikorik ez hazteko bidean aurrera egitea.

12. Basogintza-lanetarako laguntzen maila lehengoratztea, behera egin baitu azken urteetan.
13. Berehala, Euromontana elkartean sartzea eta, berriro ere, Nafarroak, Euskadik eta Akitaniak osatzen duten euroeskualdean sartzea.
14. Nafarroako Gobernuak lur-banku publiko bat sortzeko aukera aztertzea. Erretiroa hartu eta senideen artean ondorengorik ez duten nekazariak utzitako lurrek osatuko dute bankua, nekazari gazteek ustiapen-eredu kooperatibo baten esparruan ustia ditzaten.

## **INGURUMENA**

### **A. Ingurumenaren kudeaketa**

- 1.1. Nafarroarako 2020ra bitarteko ingurumen-estrategia integral eta zeharkako bat prestatzea, onartzea eta ezartzea, helburuak eta jarraipen-adierazleak hartzen dituen barnean, eragile sozialek eta herritarrek parte hartzeko bide ematen duen prozesu baten bitartez.
- 1.2. Gobernuak Europar Batasunaren 20/20/20 konpromisoa bere egitea (isuriak % 20 murriztea, eraginkortasun energetikoa % 20 handitzea eta kontsumitzen den energiaren % 20 energia berriztagarriak erabiliz ekoiztea) eta berotegi-efektua eragiten duten gasen eta osasunari kalte egiten dioten nolanhiko gas eta partikulen isurketa murriztu beharra azpimarratzea.
- 1.3. Ingurumen-heziketaren trataera sendotzea, zeharka, hezkuntza-sistemako maila guztietan.

### **B. Biodibertsitatea**

- 2.1. Lurraldean biodibertsitatea gal dadin ekiditea.
- 2.2. Natura Zaintzeko Nazioarteko Batasunaren katalogoaren arabera "egoera ahulean", "arriskuan" edo "arrisku larrian" dauden fauna- eta flora-espezieak babesteko legezko figurak eta espezie horiek kudeatzeko planak zehaztea, baita interes orokorreko zat katalogatutako espezieak babesteko eta kudeatzeko figura eta planak ere. Alde horretatik, espezie inbaditzaileak kontrolatzeko plan bat diseinatuko da, eragiten dituzten kalte ekologiko eta ekonomikoei aurre egiteko.

- 2.3. Basoko aberastasuna babesteko eta basoko baliabide naturalak ikuspegi integral batetik antolatzeko plan bat prestatzea, biomasan arreta berezia jarritz.
- 2.4. Naturagune babestuak garatzea, bertako gizarte-eragileekin elkarlanean, dagozkion figura juridikoen bidez.

#### C. Ura

- 3.1. Urari buruzko Esparru Direktibarekin bat, ibai, aintzira, hezegune eta akuiferoen kudeaketa integratu eta jasangarriaren alde egitea; hondakin-ura arazteko sistema publikoen funtzionamendua ikuskatzea; eta airearen eta uraren kalitatea ikuskatzeko eta kontrolatzeko lanak hobetzea.
- 3.2. Europar Batasuneko araudiaren garapena kontuan hartuz esku hartzea uraren alorrean (uholdeak eta uholde-eremuen lehengoratzeta, etab.).
- 3.3. Franckingari uko egitea, egungo teknologiak ez baitu ziurtatzen haustura hidraulikoak osasunean, ingurumenean eta lehenengo sektoreko eta nekazaritzako elikagaien industriako jardunean ondorio larriak ez dituenik. Izan ere, oso produktu toxikoak darabiltza, eta produktuak akuiferoetara eta azaleko uretara iragaz daitezke azkenean. Gainera, beste kalte batzuk eragin daitezke lurzoruan eta paisaian, ur bolumen izugarria erabili behar da, eta metanoa isurtzen da.

#### D. Hondakinak

1. Ekonomia zirkularraren printzipioak aplikatzea (hondakinak baliabidetarako erabiltzea) eta ahalik eta hondakin gutxien sortzera jotzea, ausarki jo ere, hondakinak murriztuz, berrerabiliz eta birziklatuz.
2. Pixkana-pixkana, kutsadura eragiten duten agenteak suntsitzea, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak kontratatzen dituen produktu eta zerbitzuetatik hasita.
3. Hondakinak gaika biltzeko eta tratatzeko sistema aurreratuen alde egitea, tokian tokiko egoerara egokituta, eta herritarren parte-hartzeaz errefusa ahal bezainbat murrizten ahalegintzea (ohitura osasungarriak sustatzea gizartean, kontzientziazioa lantzea, etab.).
4. Hondakin motak berariaz tratatzeko neurriak areagotzea.
5. Hondakin birziklaezinak deuseztatzeko bidean aurrera egitea.

6. Errefusari dagokionez, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak hondakinei buruzko zenbait direktiba aldatzeko egindako direktiba-proposamenarekin bat (proposamenak ezartzen dituen birziklatze-helburuekin eta isurimurrizketekin bat), energia berreskuratzeke helburuak eta ontzien hondakinak birziklatzeko gehieneko helburuak kentzea (94/62/EE Direktibak Europar Batasun osoan ezartzen dituenak), dagoeneko ez baitira beharrezkoak. Proposamen horrek finkatzen dituen helburuetatik ondorioztatzen denez, hondakinen hierarkia kontuan izanik balorizatutako materialak erabiltzea babestu behar du Europar Batasuneko kide diren estatuak (adibidez, papera eta zura), lehengaien hornikuntza bermatzeko eta Europar Batasunean "birziklatze-gizarte" bat eraikitzeke bidean aurrera egiteke, eta, ahal dela, ez dituzte babestu behar isurketa ez errausketa: hondakinak birziklatzea bideragarria bada alde tekniko eta ekonomikotik eta baldintzak seguruak badira ingurumenaren ikuspegitik, estatu kideek ez dute babestu behar errausketa.

Testuinguru horretan, kontuan izanik hondakinak kudeatzeko Nafarroako aurreko plan integrala baztertuta gelditu dela -errausketaren alde egiten zuen-, ikuspegi ekonomiko eta sozialetik eta ingurumenaren ikuspegitik errefusa tratatzeko teknikarik egokienak zein diren aztertzeke prozesu bat taxutuko da, gizarte zibilari eta dagozkion eragileei parte hartzeke bide emanda, plan berri baten esparruan.

7. Cementos Portland taldeak Olatzagutian hondakinak errausteko baimenaren egoera juridikoa aztertzea.

#### E. Eredu energetikoa

1. Energia kudeatzean oinarritzeko hiru gai kontuan hartzea eta orekatzea: hornikuntzaren bermatzea, kostua eta ingurumen-arloko jasagarritasuna.
2. Kanpoko energiarekiko mendekotasuna txikitzeke lan egitea.
3. Energia sortzeke moduen egoera eta bilakaera-maila etengabe aztertzea, baita bakoitzak ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-gaietan dituen ondorioak ere.
4. Energia-politika guztia eta klimaren aldaketa kudeatzeko entitate publiko bat sor dadin bultzatzea; besteak beste, orain arte CRANA Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroak betetzen zituen funtzioak betetzeke eta aldizka-aldizka autonomia-erkidego mugakideetako energia-entitate finkoekin elkarlanean aritzeke.
5. Nafarroarako Energia Plana aztertzea eta, haren bidez, 2025era bitartean energia berriztagarriak garatzearen eta energia zentzuz erabiltzearen alde egitea. Plana zehazteke beharrezko hausnarketa-prozesuaren esparruan, gai hauek landuko dira, besteak beste:

- 5.1. Hornikuntza-sare elektrikoa, egin beharreko jarduketak eta haien plangintza eta gauzatzea xeheki aztertzea. Testuinguru horretan, Itsaso eta Deikaztelu arteko linean proiektatutako azpiegitura beharrezkoa den erabakiko da, energia husteko benetako eskaria kontuan izanik, baita azpiegiturak ingurumenean duen eragina, dagozkion udalen iritzia eta kontuan hartu beharreko gainerako gai erabakigarriak ere.
- 5.2. Energia Planari buruzko hausnarketaren esparruan, indarrean dagoen legedia zorrozki betearazteari kalte egin gabe, Nafarroako Gobernuak Castejóngo zentral termikoan esku hartzeko aukera guztiak aztertzea; tartean, hura eraisteko eragina izaten saiatzea.
- 5.3. Energia aurrezte eta hura eraginkortasunez erabiltzea bultzatzeko nolanhiko jarduerak sustatzea (baterako sorkuntza, autokontsumoa, entitate publikoetako energia-gaiak ikuskatzeko lanak, eraikinen diseinua, hirigintza jasangarriaren irizpideak eraikuntza berrietan, eraikin publikoetako energiaren potentzia ikuskatzeko lanak...), jardun ekonomikoaren sektore guztietan; tartean, administrazio publikoan.
- 5.4. Ikerketa, berrikuntza eta energia-iturri berriztagarrien erabilera sustatzea, gas naturalaren azken erabilera ordezkatzeko (berokuntza).
- 5.5. I+G+B proiektuak sustatzea energiaren alorrean, unibertsitate eta zentro teknologikoen sarearekin elkarlanean (NUP, CENER Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala, etab.).
- 5.6. Nafarroan dauden energia-iturrien inbentarioa egitea (energia eolikoa, energia hidraulikoa, biomasa eta energia berriztagarriak) eta horiek erabiltzea erregai fosilen ordeztuz.
- 5.7. Garraio-jardueretan petrolioaren eta haren deribatuen ordeztuz energia-iturri berriztagarriak erabiliz ekoiztutako energia elektrikoa erabil dadin ezartzea eta mugikortasun jasangarriaren alde egitea, ibilgailu elektrikoaren alde eginda.
- 5.8. Garoñako zentral nuklearra berriro ireki ez dadin eskatzea.
- 5.9. Nafarroako Gobernuarekin kontratuak egiten dituzten enpresei energia aurrezteko eta hura eraginkortasunez erabiltzeko konpromisoak harraraztea eta betearaztea.
- 5.10. Herritarrek eredu energetikoa aldatzeko elkarteak osa ditzaten bultzatzea (kooperatibak); horretarako laguntzak emateko aukera aztertzea; eta energia-kontsumo kolektiboa sustatzea.

## **6. ANIZTASUNA, ELKARBIZITZA, BAKEA ETA BIKTIMAK**

### **6.1. BAKEA eta BIKTIMAK**

Hamarkada gehiegiz, indarkeria bidegabea eta giza eskubideen eta eskubide zibil eta politikoen urraketak bizi izan ditu Nafarroak. Gure ustez, ezinbestekoa da Aldaketaren Gobernu bakearekin, normaltasunarekin eta elkarbizitza demokratikoarekin konprometitzea eta memoriaren kudeaketa integralaren ikuspegitik sortutako plan bat sustatzea –1936ko eta frankismoko indarkeria eta berrikiago jazotakoa hartu beharko lituzke barnean planak–, gizartean bakeari eta elkarbizitzari bide emateko.

Pertsonen duintasuna eta oinarrizko giza eskubide guztien errespetua oinarri hartu, eta bakearen aldeko eta helburu politikoko indarkeriaren kontrako konpromisoa aldarrikatzen dugu, dela ETA, direla talde ultraeskuindarrak, direla Estatuko funtzionarioak indarkeria erabiltzen dutenak. Bakeak memoria, justizia eta ordaina ekarriko badie biktima guzti-guztiei, ezinbestekoa da biktimarioek eragindako kaltea onartzea eta biktimek egia jakiteko eskubidea erabili ahal izatea. Era berean, beharrezkoa da talde politiko guztiek eta gizarteak iraganari buruz hausnartzea, batera, autokritika sustatzeko, nork bere erantzukizuna onartzea bultzatzeko, gizarteak indarkeriari zilegitasuna kentzeko eta giza eskubideen aldeko apustua sendotzeko.

Horregatik guztiatik, bakearekiko eta elkarbizitzarekiko konpromisoan oinarrituz, giza eskubideen urraketa gehiagorik ez izatea ziurtatzeko prozesu oro babestuko du Aldaketaren Gobernuak, eta ETako egiturak egiaztatze moduan desarmatzea eta ordenatuta, seguru, behin betiko eta inongo baldintza politikorik gabe desegitea eskatuko du, baita zigorgabetasun-neurri eta -esparru guztiak desagertzea ere.

Era berean, giza eskubideen urraketa eta indarkeriazko ekintza oro gaitzesteko konpromisoa hartuko du, eta hura aringarririk gabe gaitzetsiko, dela ETA, direla talde ultraeskuindarrak, direla Estatuko funtzionarioak indarkeria erabiltzen dutenak.

Azken batean, egoera berri bat eraikitze lan egingen du: indarkeria eta hura erabili dutenak iraganeko kontua izateko eta orainaren eta etorkizunaren ezaugarriak elkarbizitza, demokrazia, askatasuna eta bakea izateko.

## **A. BERRIKI JAZOTAKO INDARKERIAREN MEMORIA**

### **Neurriak**

#### **1. Justiziaren aldeko apustua**

1.1. Zigor-arloko eta espetxeetako legedia salbuespenik gabe aplikatzea.

- 1.2. Zigor-arloko eta espetxeetako salbuespenezko neurriak amaitzeko ekimen propioak sustatzea.

## **2. Egiaren eta memoriaren aldeko apustua**

- 2.1. Memoriaren institutu bat sortzea, giza eskubideen nolanhiko urraketei buruzko txosten, lekukotasun eta dokumentuak biltzeko eta haiek jasan dituzten pertsona guztien errolda egiteko, memoriaren mapak sortzeko, leku publikoetan jazotako gertakari esanguratsuak seinalatzeko, datu objektiboak emateko, ikerketa historikoa sustatzeko eta indarkeriari eta indarkeriak gizartean dituen ondorioei buruzko argitalpenak kaleratzeko, etab.; eta egiaren batzorde bat sor dadin eskatzea eta bultzatzea, beharrezko dokumentuak biltzeko eta biktimei ordaina emateko proposamenak egiteko (tartean, urraketa gehiagorik ez izatea ziurtatzeko bermeak).
- 2.2. Bakearen, elkarbizitzaren eta giza eskubideen zuzendaritza nagusi bat sortzea, erakundeek giza eskubideak babesteko eta sustatzeko hartu beharreko neurriak koordinatzeko.
- 2.3. Gizartea erabiltzen duen hizkuntzan adosteko lan egitea, hizkuntzaren erabilera alderdikoia ez izateko.
- 2.4. Justizia arruntaren bidez egia osoa jakitearen alde egitea eta, inoiz ezinezkoa bada, kasuan-kasuan gertatutakoaren egia jakiteko beste mekanismo batzuk ezartzea.
- 2.5. Biktimek doako laguntza juridikoa izan dezaten ziurtatzea, legez ezarritako baldintzetan, eta haien beharrei erantzuteko prozedura judizialak erabiltzeko baliabide ekonomiko eta tekniko nahikoak jartzea.

## **3. Ordainaren aldeko apustua eta, tartean, urraketa gehiagorik ez izatea ziurtatzeko bermeak**

- 3.1. Biktimei erantzuteko bulego bat sortzea, bakearen, elkarbizitzaren eta giza eskubideen zuzendaritza nagusiaren mendean.
- 3.2. Nahi duten erasotzaile eta biktimen artean ordaina emateko bilerak sustatzea.
- 3.3. Biktima mota ezberdinen konferentzia eta bilerak antolatzea.
- 3.4. Biktimei eta biktima-elkarteei laguntzak ematea.



- 3.5. Biktimekiko zorraren alderdi guztiak aztertzea (giza alderdia eta alderdi sozial, politiko eta ekonomikoa), egia ikertuz zehazten eta egiazkotzat jotzen diren urraketengatik ordaina emateko.

## **B. EZ HAIN BERRIKI JAZOTAKO INDARKERIAREN MEMORIA**

### **Neurriak**

#### **1. Egiaren aldeko apustua**

- 1.1. Hobien mapa egunera dadin bultzatzea, gorpuzkiak lurpetik ateratzen parte hartzea eta DNA banku bat sortzea.
- 1.2. Artxibategi historikoak antolatzeko eta katalogatzeko eta ahozko, ikusizko eta ikus-entzunezko dokumentuak berreskuratzeko programak sustatzea eta/edo ezartzea; Memoriaren Nafarroako Institutua herritarrek erabil dezaketen liburutegi eta artxibategi banaz hornitzea eta Estatuko eta nazioarteko beste nodo eta zentro batzuekin lotzea; eta Memoria Historikoaren Nafarroako Dokumentu Zentroa Institutuaren barruan sartzea, baita Sartagudako parkea ere, hura sustatzen duten elkarteekin bat
- 1.3. Horretarako, NUPen egungo antolamendua kontuan izatea, institutuaren hazia izan baitaiteke, baita datuak biltzeko baliabide ekonomiko eta giza baliabide gehiago jartzeko premia ere, protagonista gehienak desagertzen ari baitira. Era berean, Aranzadi zientzia-elkartearekiko lankidetzaren areagotzea sustatuko da.

#### **2. Justiziaren aldeko apustua**

- 2.1. 1977ko urriaren 15eko amnistiaren legea baliogabetzeko eskatzen duten ekimenak sustatzea eta/edo babestea eta lege hori baliogabetzea oinarrizko printzipio demokratikotzat hartzea.
- 2.2. Biktimek doako laguntza juridikoa izan dezaten ziurtatzea eta justizia erabatekoa izateko prozedura judizialak abiarazteko baliabide ekonomiko eta tekniko nahikoak jartzea.
- 2.3. Lekukotasunak biltzeko eta haiek dokumentuetan antolatzeko protokoloa abiaraztea, balio prozesala emateko administrazio judizial eskudunaren aurrean.
- 2.4. Erregimen frankistako zigor-sumario, -espediente eta -epai guztiak baliogabetzeko eskatzea eta horretarako ekimenak sustatzea.

- 2.5. Frankismoko krimenak gizateriaren aurkako krimentzat eta genozidiotzat hartzeko eskatzea eta horretarako ekimenak sustatzea.

### **3. Ordainaren aldeko apustua eta, tartean, urraketa gehiagorik ez izatea ziurtatzeko bermeak**

- 3.1. Biktimekiko zorraren alderdi guztiak aztertzea (giza alderdia eta alderdi sozial eta politikoa), egia ikertuz zehazten eta egiazkotzat jotzen diren urraketengatik ordaina emateko.
- 3.2. Beren atxikimendu ideologiko, politiko edo sindikalarengatik espedienteak egin zieten eta garbitu eta kalera bota zituzten funtzionario publikoen eta erakundeetako langileen birgaitzea sustatzea udal guztietan.
- 3.3. Erregimen frankistarekin zerikusia duten sinbolo eta toponimoak kentzea eta erregimeneko buruzagien ohorezko aipamen oro ezabatzea.
- 3.4. "Memoriaren lekuen" errolda egitea eta hiri-antolamendurako plan orokorrek eta gainerako hirigintza-araudiek lekuok "eremu babestu urbanizaezin" deklaratzeko; garrantzi sinbolikoa duten leku adierazgarriak duintzea (adibidez, Sartagudako Memoriaren Parkea, Ezkabako espetxea, botilen hilerria eta Valcaldera); eta San Kristobal gotorlekuaren jabetza eskualdatzea eskatzeko aukera aztertzea.
- 3.5. Memoria historikoa belaunaldiz belaunaldi transmititzeko plan bat egiteko eskatzea eta plana egin dadin bultzatzea; Bigarren Hezkuntzari eta goi-mailako hezkuntzari memoria partekatua eraikitzen parte harraraztea; hezkuntza-sistemaren barruko ziklo bakoitzerako unitate didaktikoak prestatzea; eta biktimek memoria historikoa belaunaldiz belaunaldi transmititzeko prozesuetan parte hartzea.

### **NEURRI GUZTIEN LABURPENA**

1. Herritarren giza eskubideen eta eskubide zibil eta politikoen urraketa gehiagorik ez izatea ziurtatzeko neurriak eskatzea eta sustatzea eta bakearekin, memoriarekin eta giza eskubideen defentsarekin erabat konprometitzea; eta foru-lege hauek zorrozki betetzea: 9/2010 Foru Legea, apirilaren 28koa, terrorismoaren biktimei laguntzeko; 16/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa; eta 33/2013 Foru Legea, azaroaren 26koa, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta

errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa.

2. Ahalik eta adostasun handiena izanik, urtero giza eskubideen urraketan biktima guztiak aitortzeko jardunaldi bat egiteko proposamen bat prestatzea.

## **6.2. ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA**

Gure etorkizuna eraikitzeko, Nafarroa plural, ireki, euskaldun, laiko, sozial eta solidarioa nahi dugu, bere bi hizkuntzez harro dagoena eta identitate guztiak errespetatzen dituen; bere autogobernua eta eskubide demokratikoak zaintzeaz eta haietan sakontzeaz arduratzen dena: elkarbizitzaren Nafarroa. Horregatik, elkarbizitza baketsuaren eta pertsonen identitatearen, joera sexualaren, generoaren, lanaren, etniaren, erlijioaren eta hizkuntza-eskubideen aurkako eraso oro baztertuko du Aldaketaren Gobernuak.

Nafarroan adierazpen askea eta aniztasunaren garapena bermatzea da Aldaketaren Gobernuaren lehentasunezko helburua, baita Nafarroan esparru guztietan dauden ikuspegi eta adierazpen guztiak errespetaraztea ere, homogeneizazioa behartu gabe eta aniztasunak Nafarroako gizarteari ematen dion aberastasuna nabarmenduta.

Nafarroako kultura askotarikoa da, eta gizartea aniztasun hori kontuan izanik eraikitzeak izan behar beharko luke funtsezko helburua. Bada, elkarbizitza da gakoa, eta, alde horretatik, elkar ezagutzea, ulertzea eta onartzea ezinbestekoa da elkarbizitza garatzeko; hau da, kohesiodun gizarte bat eraikitzeko, pertsona guztien eskubide guztiak eta aukera-berdintasuna bermatzen dituen. Era berean, giza eskubideek eta askatasun publikoek lehentasuna izateak izan behar du nafarren elkarbizitzaren oinarria. Hori dela eta, gure egiten ditugu nazioarteko zuzenbidearen esparruan gaiari buruz onartutako deklarazio eta konbentzio guztiak.

Berdintasuna eta osasunerako, hezkuntzarako, etxebizitzarako, kulturarako, lanerako, baliabideetarako eta aisialdirako oinarritzeko eskubideak bermatzearen alde lan egingen du Aldaketaren Gobernuak. Eskubide horiek murrizteko eta pribatizatzeko ahaleginen aurka egingen du, eta gazteek hezkuntza-, etxebizitza- eta lan-arloan eta beste arlo batzuetan dituzten arazoei aurre egiteko berariazko politikak babestuko ditu: arreta berezia jarriko du gizarte-politikak hobetzeko funtsezkoak diren gizarte- eta lan-arloko gaietan.

Azken batean, Nafarroa sozial, plural, demokratiko, baketsu, solidario eta bidezkoa eraikitzeko lan egingen dugu; identitate eta sentsibiltate linguistiko eta kultural guztiak elkarrekin bizitzeko eta identitate bakoitza berariaz garatzeko bideak jartzeko; betiere, kultura publiko komuna eraikitzea helburu, inolako errebantxismorik gabe, guztion ongia lortu nahian, gizartearen baitako eta herritarren arteko akordioaren bidez.

Funtsezkoa iruditzen zaigu elkarrekiko errespetua eta onarpena sustatzea eta elkarri amore eman diezaiogun bultzatzea, baita nolana hiko inposizioei uko egitea eta gure elkarbizitza-ereduaren alderdi komunak gizarte osoaren parte-hartzeaz hitzartzen saiatzea ere.

Ilido horretan, honako neurri hauek beharrezkoak iruditzen zaizkigu:

1. Departamentu guztiak akordioak aipatzen dituen gaietan esku harzeko lotzea.
2. Erakundeek aniztasunarekin eta elkarbizitzarekin zerikusia duten arazo orokor eta zehatzak konpontzen parte hartzea.
3. Sinboloei buruzko Legea indargabetzea; bazterketarik ez dakarren lege bat sustatzea, herritarren helburu legitimo guztiak barnean hartzen dituen; eta tolerantzia- eta integrazio-politika aplikatzea sinboloak direla eta.
4. Sineskera guztiak errespetu daitezen bultzatzea, erakunde publikoak erabat neutralak izanik.

## **7. FUNTZIO PUBLIKOA, JUSTIZIA ETA BARNE-GAIAK**

### **7.1. FUNTZIO PUBLIKOA**

1. Hausnarketa egin eta foru-administrazioaren erreforma demokratikoa sustatzea, profesionaltasun-, gaitasun- eta eraginkortasun-printzipioei jarraituz funtziona dezan, herritarrei zabalik egon dadin eta funtzionarioek jardun publikoan parte har dezaten.

Hausnarketa egindakoan, besteak beste, Funtzio Publikoaren Estatutua aldatuko da, aipatutako irizpideei jarraituz; ahal dela, legealdi honetan bertan.

2. Administrazioaren egitura eta beharrezko langile motak zehaztea: lanpostuak, profil profesionalak eta hizkuntza-eskakizunak zehaztea.
3. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua eta haren planak planteatutako erreformara egokitzea, funtzionarioen gaitasun eta gaikuntza profesionala eta administrazioaren eraginkortasun eta gardentasuna sustatzeko haren bidez eta herritarrei zerbitzu egitea eta funtzionarioek administrazioaren jardunean parte hartzea bultzatzeko. Era berean, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren ardura izanen da funtzio publikoan sartzeko sistemak zehazten, haiek gauzatzen eta zuzendaritza-postuetarako hautagaien egokitasuna ebaluatzen laguntzea.
4. Funtzio publikoan sartzeko sistemak aztertzea.

5. Merezimenduan, gaitasunetan, esperientzian eta jardunean oinarrituz, administrazio-karrera sortzeko aukera aztertzea.
6. Burutza eta zuzendaritzen azterketa orokorra egitea eta administrazioaren funtzionaltasun eta antolamendurako beharrezkoak ez direnak eta langilerik ez dutenak kentzea.
7. Zuzendaritza-lanak, zerbitzu-zuzendaritzak eta idazkaritza nagusi teknikoak banatzea, merezimenduan eta gaitasunetan oinarrituz, eta haietako jarduna aldi-aldi ebaluatzea. Lanpostu horiek betetzeko, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko batzorde independente batek txosten bat eginen du aurrez, loteslea izanen ez dena, hautagaien gaitasun eta egokitasunari buruz.
8. Berariaz izendatutako administrazio-unitate baten bidez, funtzionarioen bateraezintasun-araubidearen jarraipen estua egitea; batez ere, administrazioan edo enpresa publikoetan zuzendaritza- edo ardura-postuetan daudenen araubidearena.
9. Zerbitzu-zuzendaritzen araubidea eta ordainsariak Funtzio Publikoaren Estatutuarekin lotzea.
10. Oro har, beharrezkoa den zuzendaritza nagusi eta zerbitzu-zuzendaritza guztietan, langileek parte hartzeko esparru egonkorrak sortzea, langile bakoitzak bere alorreko helburu eta programen berri izan dezan eta iritzia eman eta proposamenak egin ahal izan ditzan.
11. Iritziaren arabera kontratatutako enpresa eta profesionalek lan espezifikoak egiten dituzten funtzionarioak sistematikoki ezin ordezkatzeko.
12. Pixkanaka, egungo prekarietate-maila eta behin-behinekotasuna nabarmen txikitzea -bereziki, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen alorrean-; Pixkanaka, azken urteetan murrizketak izan dituzten lantaldeak nabarmen handitzea; egiturazko lanpostu guztiak lanpostuen zerrenda organikoan sartzea; eta hori guztia egiteko beharrezko lan-eskaintza publikoetara deitzea.
13. Mailaka, erosteko ahalmena lehengora dadin bultzatzea, azken urteetan txikitu egin baita krisialdiaren ondorioz.
14. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresetako langileen egungo egoera aztertzea, haien artean eta haien eta administrazioko langileen lan-baldintzen artean alderik dagoen jakiteko.
15. Azken urteetan foru-administrazioaren barruan egindako zerbitzu-pribatizazioak aztertzea, baita kontratuak behin-behineko bihurtzeko abian dauden prozesuak ere; adibidez, suhiltzaileak aldi baterako langile bihurtzeko prozesua.

## **7.2. JUSTIZIA**

1. Estatu osoan bateragarriak diren aplikazio informatikoen bidez Nafarroako Justizia-administrazioko teknologiaren modernizazioa babestea eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak sustatutako elkarreragingarritasun-planari heltzea.
2. Giza eskubideen plan bat ezartzea, Nafarroako Gobernuaren eta toki-entitateen mendeko atxiloketa-zentro guztiak giza eskubideak bermatzera eta torturari eta tratu txarrei aurre egitera behartzeko.
3. Justizia-sistemaren osagarri, bitartekaritza- eta adiskidetze-prozedurak ezartzea gatazkak ebazteko eta, dagokion foru-legearen bidez, alor hori arautzea.
4. Nafarroako Gobernuaren barnean epaitegietan diharduten langileen benetako lan-zama aztertzea, lanez gainezka zer epaitegi dauden jakiteko eta egoerari aurre egiteko plan bat sustatzeko; eta bitarteko langileei prestakuntza ematea.
5. Ofiziozko txandako langileei ordainsari duina ematearen alde egitea.
6. Nafarroako Gobernuaren barruan zigorren betearazpena kudeatzeaz arduratuko den organo bat sortzeko aukera aztertzea.
7. Nafarroako bulego judizial berria irekitzea, epaile eta auzitegiak jurisdikzio-lanean laguntzeko eta babesteko eta administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazioa sustatzeko.
8. Gizarteratze-sare sendo bat sortzea eta Iruñeko espetxean gizarteratze-programak sendotzea.
9. Nafarroako foru-zuzenbide zibilarren erreforma eta eguneratzea sustatzea, egungo gizartearen egoerara egokitzeko.

### **7.3. FORUZAINGOA**

1. Estatuarekin Foruzaingoa mailaka garatzeko negoziatzea, Foruzaingoak bere gain har ditzan zirkulazioaren eta garraioaren, herritarren segurtasunaren, ingurumenaren, ikuskizun publikoen, jarduera sailkatuen eta ordena publikoaren gaineko eskumen guztiak eta, horrela, polizia integral bihur dadin.
2. Foruzainak trebatzeko plan bat sortzea, eskumen horiek guztiak garatu eta beren gain hartu ahal izan ditzaten.
3. Foruzaingoa eta udaltzaingoak koordinatzeko mekanismo eraginkorrak sortzea, baita Nafarroan diharduten polizia-kidego guztiek elkarri informazioa emateko sistema bat ere.

4. Foruzaingoko esku hartzeko unitate bereziaren lana arautzeko protokolo bat prestatzea; gomazko pilotak jaurtitzeko eskopetak erabil daitezzen debekatzea; eta, atzera eragiteko, gomazko pilotak erabil daitezzen debekatzea.

#### **7.4. SUHILTZAILEAK, BABES ZIBILA ETA BOLUNTARIOAK**

1. SOS Nafarroaren lana sustatzea, nolanhiko larrialdietan dei daitekeen zentro bakarra baita.
2. Larrialdien kudeaketan espezializatutako teknikarien figura sortzea eta suhiltzaileek, poliziakideek, osasun-langileek, boluntarioek eta babes zibileko taldeek haien esanetara lan egitea.
3. Suhiltzaileen Zerbitzuko gida-plana prestatzea.
4. Esku hartzeko plan berri bat prestatzea, boluntario taldeak kontuan izanik.
5. Larrialdietako osasun-garraioa berrantolatzeke planari berriro heltzea.
6. 836/2012 Errege Dekretua Nafarroan aplikatzea, errepide bidezko osasun-garraiorako ibilgailuen ezaugarri teknikoak, ekipamendu sanitarioak eta langileak ezartzen dituen, eta hark xedatzen duena berehala arautzea.
7. Nafarroako Larrialdietako Zerbitzuko zuzendaritzari atxikitako zuzendaritza mediko bat sortzeko aukera aztertzea, osasun-larrialdiak arautzen esku har dezan.

#### **8. PROGRAMA-AKORDIOA GARATZEKO ETA HAREN JARRAIPENA EGITEKO BATZORDEA**

##### **Printzipio gidariak**

Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerrako ordezkariak osatuko dute programa-akordioa garatzeko eta haren jarraipena egiteko batzordea, eta honako printzipio hauei jarraituko die:

1. Alderdi bakoitzak lau ordezkari izanen ditu.
2. Hiru hilean behin bilduko da gutxienez, edo, sinatzailearen batek eskatzen badu, hiru egunen buruan.

3. Helburu hauek izanen ditu:

- Akordio hau zenbateraino betetzen den aztertzea eta akordioa interpretatzea.
- “Adosteko gaiak” ataleko gaiak aztertzea.
- Bloke bakoitzaren esparruan hitzartutako txostenak aztertzea.
- Gobernuak akordio hau betetzeari buruz eman beharreko azalpenak entzutea.
- Hitzartutakoa kanpoan gertatzen diren aldaketetara eta zirkunstantzia berezietara egokitzeko aukera aztertzea.

4. Oinarrizko printzipio bati jarraituko dio batzordearen jardunak: adostasunari.

Edonola ere, hurrengo bilkura-aldia hasi aurretik, batzordearen funtzionamendurako arau eta printzipioak prestatzeko konpromisoa hartzen dute sinatzaileek.

### **Adosteko gaiak**

1. Hezkuntza: hizkuntza-ereduen bateragarritasuna, unitate berrien ituntzea nahitaezko etapetan, ituntzea nahitaezkoak ez diren etapetan.
2. Gizarte-politikak: zuzkidura publikoaren kontzeptuaren azterketa –udalerrri eta auzo guztietan alokatzeko etxebizitza publikoak daudela ziurtatzeko– etxebizitza bat alokatzeko eskubide subjektiboa.
3. Autogobernua: enplegu-politika pasiboen gaineko eskumenak eskualdatzeko eskaera, Gizarte Segurantzaren eta Lan Ikuskaritzaren kudeaketa.
4. Lan-harremanak: enplegu-politika aktiboetarako funtsak kudeatzeko eredia.
5. Lurraldearen antolamendua : Aroztegiko Udalez gaindiko Plan Sektoriala.
6. Normalizazioa eta elkarbizitza: ETArekin harremana izateagatik zigortutakoek bakarka eta taldean hausnartzea bultzatzeko mekanismoak
7. Funtzio publikoa: zuzendari nagusien profilak eta haiek aukeratzeko sistema.
8. Hizkuntza-politika: euskararen lege berria.